

Zuzenbide Fakultatea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ATZERRITARREN BARNERATZE ZENTROA

ITZIAR GALPARSORO MANTEROLA

TUTOREA: JUAN IGNACIO UGARTEMENDIA

GRADU AMAIERAKO LANA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO

ZUZENBIDEKO FAKULTATEA / FACULTAD DE DERECHO

ZUZENBIDEKO GRADUA / GRADO EN DERECHO

2016/2017 KURTSOA

Aurkibidea

1. LANAREN AZALPENA	4
2. SARRERA	5
2.1 EUOPAR BATASUNA	5
2.2 PRINTZIPIO ETA BALOREAK	5
2.2.1 Askatasuna, Berdintasuna, Zuzenbidezko Estatua eta Giza Eskubideekiko errespetua	5
2.2.2 Zirkulazio librea.....	6
2.3 EUOPAR BATASUNAREN HARREMANA IMMIGRAZIOAREKIN:.....	6
3. ASKATASUN, SEGURTASUN ETA JUSTIZIA EREMUA: IMMIGRAZIO POLITIKAK..	8
3.1 SARRERA.....	8
3.2 MUGEN KONTROLA.....	9
3.2.1 Kanpo mugen kontrola.....	9
3.2.1.1 Teknologia berrien aplikazioa.....	10
3.2.1.2 Koordinazio agentzien sorrera eta kudeaketa.....	11
3.2.1.3 Muga fisikoak eraikitzea.....	12
3.2.2 Kontrolen esternalizazioa	12
3.2.2.1 Mugen gestioa.....	13
3.2.2.2 Artatze Zentroak	13
3.2.2.3 Aberriratzeak	14
3.3 IMMIGRANTE IRREGULARREN KONTROLA	14
3.3.1 Perfil etnikoen erabilera	14
3.3.2 Atxiloketak	15
3.4 ABERRIRATZEAK.....	15
3.4.1 Aberriratzea nola?.....	16
3.4.2 Aberriratzea nora?.....	17
3.4.3 Turkiaren kasu berezia.....	17
4. ATZERRITARREN BARNERATZE ZENTROAK	18
4.1 ARAUDI APLIKAGARRIA	20
4.1.1 Barneratzea.....	20
4.1.2 Barneratze zentroen funtzionamendua.....	21
4.1.2.1 Barneratze momentua	21
4.1.2.2 Estructura.....	22
4.1.2.3 Zerbitzuak	22
4.1.2.4 Elkarbizitza arauak.....	23
4.1.2.5 Instalazioak	23
4.1.3 Barneratze Zentroen ezaugarriak	23
4.1.4 Atzerritarren babes neurriak	24
4.1.4.1 Kanporatze espedientearekiko	24
4.1.4.2 Barneratzearekiko	24

4.1.4.2.1	Denborazko babesa:.....	25
4.1.4.2.2	Babes judiziala:.....	25
4.1.4.2.3	Inspekzioak:.....	25
4.1.4.2.4	Non bis in idem:	25
4.1.5	<i>Atzerritarren eskubideak</i>	26
4.1.6	<i>Atzerritarren betebeharrak</i>	26
4.2	ESKUBIDEEN URRAKETAK	26
4.2.1	<i>Askatasun Pertsonala eta Tutela Judizial efektiboa</i>	27
4.2.1.1	STC 144/1990, irailaren 26koa	27
4.2.1.2	STC 169/2008, abenduaren 15koa	29
4.2.1.3	Urraketak adierazten dituzten informeak	30
4.2.1.4	Ondorioak	31
4.2.2	<i>Duintasuna eta intimitatea</i>	32
4.2.2.1	Instalazioak	32
4.2.2.2	Asistentzia Sozial eta Kulturala	33
4.2.2.3	Biluzi integraleko erregistroa.....	34
4.2.2.4	Behar materialen asetzea.....	34
4.2.2.5	Ondorioak	35
4.2.3	<i>Osotasun fisiko eta psikikoa</i>	35
4.2.3.1	SAP 276/2015, Malaga sec. 3ª	35
4.2.3.2	Asistentzia psikologiko eta psikiatrikoa.....	37
4.2.3.3	Asistentzia sanitarioa	37
4.2.3.4	Ondorioak	37
4.2.4	<i>Dokumentazioa izateko eskubidea</i>	38
4.2.5	<i>Berdintasuna eta diskriminatua ez izateko eskubidea</i>	39
4.2.5.1	Genero ikuspuntutik gabeko politikak	39
4.2.5.2	Instalazio falta.....	39
4.2.5.3	Asistentzia sozial eza	40
4.2.5.4	Ondorioak	40
5.	ONDORIOAK	41
5.1	EUOPAR BATASUNEN NEURRIAK.....	41
1.5.1	<i>Mugen itxiera</i>	41
1.5.2	<i>Hirugarren estatuekin egindako akordioak</i>	41
5.2	ESPAINIAR ESTATUKO NEURRIAK.....	42
2.5.1	<i>Atzerritarrekiko errepresio politika</i>	42
2.5.2	<i>Atzerritarren Barneratze Zentroak</i>	43
5.3	ATZERRITARREKIKO POLITIKAK ETA JARRERA	44
6.	ITURRIAK	45
6.1	BIBLIOGRAFIA	45
6.2	ARAUDIA ETA BESTE TESTU BATZUK	48

1. Lanaren azalpena

Azken urteotan, Europar Batasunean geroz eta garrantzi handiagoko gaia da immigrazioa, izan ere, migrazio fluxuek, EBko sistema kolokan jarri dute behin eta berriz. Hori dela eta neurri asko eta asko hartu dira, komunikabideek horiek azaleratzean paper garrantzitsua jokatu dutelarik.

Lan honen bitartez, zuzenbidearen alorrean ia isilpean igarotzen ari den neurri askatasungabetzaile bat ekarri nahi dugu mahai gainera, Atzerritarren Barneratze Zentroa. Horretarako, lehenik, Europar Batasuneko sorreran hasiz, egun immigrazio alorrean aplikatzen diren neurri komunitarioak aipatuko ditugu.

Hori eginik Espainiar Estatuan martxan diren ABZen azalpena burutuko dugu, araudia aztertuz eta bertan arriskuan dauden eskubideak azaleratuz.

Aipatu beharra dago, egoera irregularrean dagoen atzerritar batek biziko edo jasango dituen neurrien azalpen global bat ematea da helburua, horregatik, kasu horiek soilik aztertuko ditugularik lan honetan¹.

¹ Laugarren atalean ikusiko dugun moduan, Atzerritarren Barneratze Zentroen aplikazioa, kausa ezberdinen ondorioz ematen da. Horregatik, alde batera utziko ditugu kautela neurri honen aplikazioa emateko aurreikusiak dauden bestelako egoerak eta ez onartze salak (*salas de inadmisión*).

2. Sarrera

2.1 Europar Batasuna

Europar Batasuna, egun ezagutzen dugun moduan 1992. urteko Maastricheko Tratatuaren bitartez sortu zen. Bertan hiru pilare edo zutabe osatu ziren: Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Komunitatea (CECA), Europako Atzerri- eta Segurtasun- Politika (PESC) eta Justizia eta Barne Arazoetako Lankidetzak (CAJI).

Lehen zutabea Komunitate Europarretan oinarrituriko lan moldearen bitartez burutzen zen bitartean, bi eta hirugarrenak kooperazio integubernamentalean oinarriturikoa jarraitzen zuten, hirugarren multzo honen barruan kokatzen zirelarik, segurtasuna, kanpo politika etab.

1997. urtean, Amsterdameko Tratatuak onartzean, molde komunitarioak jarraitzen duten arlo kopurua handitzen da, Askatasun, Segurtasun eta Justizia Eremua sortuz. Honako sei lan eremuak hartuko ditu barne: Mugen kontrola (Schengen akordioa EBren barne arau eginez, barne mugen kontrola ezabatu eta kanpo mugen kontrola komunitarizatuz), Asilo politika, Immigrazio politika, Kooperazio Judizial Zibila, Kooperazio Judizial Penala eta Kooperazio Poliziala.

Gerora, Lisboako Tratatuarekin, Europar Batasuneko Tratatuak eguneratuz, modifikazio batzuk jasan dituen arren ASJEk, aldaketarik garrantzitsuenak Amsterdamen ematen dela argi dugu, aipaturiko arlo horiek guztiak molde komunitarioz lantzerako pasatzen baitira.

2.2 Printzipio eta baloreak

2.2.1 Askatasuna, Berdintasuna, Zuzenbidezko Estatuak eta Giza Eskubideekiko errespetua

Europar Batasunak, hastapenetan, helburu bakartzat batasun ekonomiko bat osatzea bazuen ere, egun arlo sozial, politiko eta kulturalak barne hartu eta horietan sustengatzen dela argia da. Hori dela eta Europar Batasunaren Tratatuak 2. artikulua honakoa adierazten du:

Batasunak oinarritzeko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatuak eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla. Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta

emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan. (TUE, 1992)²

Ikusten dugunez, EBk berdintasuna, giza eskubideen errespetua, askatasuna, demokrazia, tolerantzia... bezalako balioen aldarria burutzen du. Ondorioz, aurrera eramaten duen edozein politika edo araudiren oinarri izango dira balio horiek, nazioartekoak barne.

2.2.2 Zirkulazio librea

EB sortu zen momentutik, helburu oso garrantzitsua izan da pertsonen eta ondasunen zirkulazio librea lortzea (SOLANES CORELLA, 2005)³. Egun, oinarrizko eskubide moduan jaso dago Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuaren 20.2 eta 21 artikuluetan eta EBko Oinarrizko Eskubideen Kartako 45. artikuluan.

Sorreran ordea, zirkulazio hori gauzatzeko, 1985. urtean Schengen hitzarmena burutu zen EBko bost estaturen artean, denbora gutxira, estatu kide gehienek parte hartzeko hautua egin zutelarik (MORA CABO, 2012)⁴.

Zabalpen hori ikusirik, Amsterdameko Tratatuaren bitartez, Europar Batasuneko araudi barnean txertatu zen 1997. urtean, 1999an indarrean sartuz.

Espainiar estatuaren kasuan, 1991ko ekainaren 25ean onartu zuen hitzarmena. 1995ean jarri zen martxan akordioa, parte hartzen zuten estaturen arteko barne mugak ezabatuz eta "Schengen espazioa" deituriko eremua osatuz. Espazio horren funtzionamendua egokia izateko, barne mugak bertan behera geratzeaz gain, zenbait arlotan politika amankomunak adostu zituzten (asilo eskubidea, kanpo mugen kontrola, immigrazioa etab.), baita SIS (Schengen Informazio Sistema) osatzea (MORA CABO, 2012)⁵.

2.3 Europar Batasunaren harremana immigrazioarekin:

Europar Batasunak, lotura handia izan du immigrazioarekin bere hastapenetatik. Aurretik aipaturiko Schengen Akordioak ere honela ulertzen du, lehentasunezko kontsideratuz

² TRATADO DE LA UNIÓN EUROPEA. (1992.eko Otsailak 7). Maastricht. 2. artikulua.

³ SOLANES CORELLA, Á. (Mayo-Junio de 2005). «La política de inmigración en la Unión Europea: desde tres claves». *Arbor*(73), 81-100. 81. orrialdea.

⁴ MORA CABO, J. (Abril - Junio de 2012). «Centros de Internamiento de Extranjeros». *Tribuna*(185), 65-67. 65. orrialdea.

⁵ *Ibidem*. 65. orrialdea.

kanpo mugak indartzea. Modu horretara emigrazio fluxuak kontrolatu eta ordena publiko zein segurtasuna bermatuko dela kontsideratzen da (POMARES CINTAS, 2014 - 2015)⁶. Ikusten dugunez beraz, akordioak lotura estua egiten du immigrazio eta delituaren artean (SOLANES CORELLA, 2005)⁷. Lotura horren adierazpen nagusia ordea, Askatasun, Segurtasun eta Justizia Eremuaren osaera bera litzake (Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuan egiten dena), non immigrazio politika *Segurtasun* atalean kokatzen den (POMARES CINTAS, 2014 - 2015)⁸.

Harreman horrek, immigrazio ilegala delinkuentziarekin parekatzera eramaten ditu politikak eta ondorioz hiritarrak (KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA, 2002)⁹, atzerritarra etsai moduan kokatuz (POMARES CINTAS, 2014 - 2015)¹⁰.

Kezka hori oinarri, honako adierazpenak egiten dituzten Parlamentu eta Komite Ekonomiko eta Sozialak hurrenez hurren:

“Recuerda que los inmigrantes en situación irregular no deben ser asimilados a delincuentes y que muchos de ellos arriesgan su vida para buscar en Europa la libertad o un medio de subsistencia” (PARLAMENTO EUROPEO, 2007)¹¹.

“Aunque no sea legal entrar en un Estado sin la documentación y las autorizaciones establecidas, estas personas no son delincuentes” (KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA, 2002)¹².

EBk burutzen dituen irakurketek ordea, ez dute bat egiten ondoren martxan jartzen dituen neurri eta politikekin, izan ere, gaur egun, immigrazio irregularren kontrako

⁶ POMARES CINTAS, E. (septiembre - febrero de 2014 - 2015). «La Unión Europea ante la inmigración ilegal: la institucionalización del odio». *Eunomia, Revista en Cultura de la Legalidad*(7), 143-174. 144. orrialdea.

⁷ SOLANES CORELLA, Á. (Mayo-Junio de 2005). «La política de inmigración en la Unión Europea: desde tres claves». *Arbor*(73), 81-100. 81. orrialdea.

⁸ POMARES CINTAS, E. (septiembre - febrero de 2014 - 2015)... *Op. Cit.* 145. orrialdea.

⁹ COMITÉ ECONOMICO Y SOCIAL. (25 de Abril de 2002). Dictamen del Comité Económico y Social sobre la «Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo relativa a una política común de inmigración ilegal». 79-83. Bruselas. 80. orrialdea. 2.1 paragrafoa.

¹⁰ POMARES CINTAS, E. (septiembre - febrero de 2014 - 2015)... *Op. Cit.* 145. orrialdea.

¹¹ PARLAMENTO EUROPEO. (26 de Septiembre 2007). Prioridades políticas en la lucha contra la inmigración clandestina de los nacionales de terceros países. *Resolución del Parlamento Europeo, sobre las prioridades políticas en la lucha contra la inmigración clandestina de los nacionales de terceros países*. Estrasburgo.

¹² COMITÉ ECONOMICO Y SOCIAL. (25 de Abril de 2002). Dictamen del Comité Económico y Social sobre la «Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo relativa a una política común de inmigración ilegal». 79-83. Bruselas. 80. orrialdea. 2.1 paragrafoa.

errepresiora (MARTÍNEZ ESCAMILLA & SÁNCHEZ TOMÁS, 2011)¹³ eta prebentziora (MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, 2002)¹⁴ bideratutako politikak soilik ditugu mahai gainean.

“Immigrazio ilegalaren aurrean prebentzio-neurriak hartzea eta horren kontra aritzea, Europar Batasunaren asilo eta immigrazio politika bateratuaren oinarrizko elementuak dira” (CONSEJO EUROPEO, 2002)¹⁵

Neurri ala politika horientzat ordea, bada eszepzio argi bat, behin eta berriz EBren komunikazio tresnetan azaltzen zaiguna, izan ere, irekiera beharrezkoa ikusten da, egun Europar Batasunak duen demografia arazoa konpontzeko. Hori adierazten digute Komite Ekonomiko eta Sozialaren 2005/C 157/15 Irizpenak 1.10 paragrafoan eta Komite Ekonomiko eta Sozialaren 2012/C 191/23 Irizpenak, 1.14 paragrafoan.

Horretaz gain, jakina da ere lan indarraren eskaria murrizten den momentuetan (egungo krisi ekonomikoan eman den moduan), mugimendu migratzaileak mugatze bidean neurriak hartzen direla (SOLANES CORELLA, 2005)¹⁶. Legezko immigrazioa onartzeko azalpenetan ere, estatu kideen merkatu laborala kontuan hartu beharreko elementua dela adierazten da (CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA, 2008)¹⁷.

3. Askatasun, Segurtasun eta Justizia Eremua: immigrazio politikak

3.1 Sarrera

Schengen akordioaren bitartez, helburu zehatz bat bilatzen zen: *“lograr, gradualmente, la supresión de los controles en las fronteras interiores y la consecuente conversión de las fronteras exteriores en fronteras comunes”* (MANGAS MARTÍN & LIÑÁN

¹³ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M., & SÁNCHEZ TOMÁS, J. (2011). «Controles de identidad, detenciones y uso del perfil étnico en la persecución y castigo del inmigrante "sin papeles": ilegalidad e inconstitucionalidad de determinadas prácticas policiales». *INMIGRAPENAL (Grupo Inmigración y Sistema Penal*. 2. orrialdea.

¹⁴ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J. (2002). *La inmigración y el asilo en la Unión Europea - Hacia un nuevo espacio de libertad, seguridad y justicia*. Madrid: Colex. 167. orrialdea.

¹⁵ CONSEJO EUROPEO. (2002). Propuesta de Plan Global para la lucha contra la inmigración ilegal y la trata de seres humanos en la Unión Europea. 24-34. 24. orrialdea.

¹⁶ SOLANES CORELLA, Á. (Mayo-Junio de 2005). «La política de inmigración en la Unión Europea: desde tres claves». *Arbor*(73), 81-100. 82. orrialdea.

¹⁷ CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (24 de Septiembre de 2008). Pacto europeo sobre inmigración y asilo. Bruselas. 13. orrialdea.

NOGUERAS, 2016)¹⁸. Hori egiteko Askatasun, Segurtasun eta Justizia Eremuan txertatu zen, eta pilare komunitarioaren parte bilakatu zen.

Aurretik aipatu dugun moduan, ASJEn barne dago immigrazio politika gauzatzea. Politika horren barruan immigrazio regularra (onarturikoa) eta immigrazio irregularra lantzen dira, modu egokian kudeatzea ezinbestekoa delarik ASJEn helburuak betetzeko (SOLANES CORELLA, 2005)¹⁹.

Zoritxarrez, “egungo migrazio politika murriztaileen ondorioz, migrazio fluxu handiena modu irregularrean bideratzen da” (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2009)²⁰. Fluxu horiek kontrolatzeko tresna ugari dauden arren, immigrazio ilegalaren kontrako borroka da lehentasunezko edo oinarrizko politika (CONSEJO EUROPEO, 2002)²¹.

Hartzen diren neurriak, hiru ataletan sailkatu daitezke:

Batetik, Europar Batasunaren kanpo mugen kontrola eta hori egin ahal izateko aurrera eramandako politikak. Bigarrenik, muga barnean dagoen immigrante irregularrari aplikatuko zaizkion politika eta neurriak. Azkenik, atzerritarra kanporatzeko aplikatuko den aberriratzea²².

3.2 Mugen Kontrola

Schengen akordioa indarrean dagoen momentutik, barne mugetako kontrolak desagertzen dira eta ondorioz, kanpo mugak babes neurritzat hartzen dira, delinkuentzia eta bestelako segurtasun arazoetaz babesteko bide direla kontsideratzen direlako. Hori dela eta, EBren helburu oso garrantzitsu bat bihurtzen da muga horien kontrola.

3.2.1 Kanpo mugen kontrola

Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuak honakoa adierazten du 77.1 artikuluan: “*La unión desarrollara una política que tendrá por objeto: b) garantizar los controles de las personas y la vigilancia eficaz en el cruce de las fronteras exteriores*” (TFUE, 1957)²³.

¹⁸ MANGAS MARTÍN, A., & LIÑÁN NOGUERAS, D. (2016). *Instituciones y Derecho de la Unión Europea*. Madrid: Tecnos. 117. orrialdea.

¹⁹ SOLANES CORELLA, Á. (Mayo-Junio de 2005). «La política de inmigración en la Unión Europea: desde tres claves». *Arbor*(73), 81-100. 85. orrialdea.

²⁰ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2009). «Inmigración, Derechos Humanos y política Criminal: ¿Hasta dónde estamos dispuestos a llegar?». *InDret*. 7. orrialdea.

²¹ CONSEJO EUROPEO. (2002). Propuesta de Plan Global para la lucha contra la inmigración ilegal y la trata de seres humanos en la Unión Europea. 24-34. 24. orrialdea.

²² Aberriratzea = Retorno.

²³ TFUE. (1957). *Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea*. 77.1 artikulua.

Immigrazio ilegalari aurrea hartzeko kanpo mugen gestioak, egokia izan behar du eta kalitate handiko kontrolak burutu (CONSEJO EUROPEO, 2002)²⁴, horretarako, teknologiaren aplikazioa (CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA, 2008)²⁵ eta koordinaziorako agentzia baten sorrera aurreikusten da.

3.2.1.1 Teknologia berrien aplikazioa

Teknologiaren aplikaziorik garrantzitsuena Schengen Informazio Sistema (SIS) izan da, egun jada SIS II sortu eta indarrean dagoelarik. Beraren bitartez Schengen espazioaren barne diren estatuek, pertsona eta ondasunen informazioa elkar trukatzeko (MORA CABO, 2012)²⁶.

Informazio horrekin, kanpo muga igarotzen ari den pertsona onartua den ala ez erabakiko da, izan ere, ulertzen da zerrenda hori osatzen duten pertsonen nazio segurtasunaren kontrako jarduerak burutu ditzaketela.

Horren aurrean ordea, zerrenda horiek osatzerako modua dugu, ez delarik inolako muga edo murrizpenik ematen. Urte beteko askatasun gabetzea eragin dion zigor bat izan duen pertsona oro txertatu daiteke zerrenda honetan, delitu mota kontuan hartu gabe. Are gehiago, ustez delitu bat egin duten baino horrengatik zigortua izan ez den edota, ustez delitu bat burutzeko asmoa duen pertsonak ere zerrendan ager daitezke (MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, 2002)²⁷.

SIS zerrendaz gain, badaude bestelako sistema batzuk, informazio edo datu pertsonalak artu eta koordinazio bidez estatu-kideen artean elkartrukatzeko. Horren adibide ditugu VIS zerrenda, non aurpegi eta behatzen identifikazio biometrikoak erabiltzen diren bisa eskatzen duten pertsonen kontrola burutzeko, edo Eurodac, zeinaren bitartez asiloa eskatzen duten 14 urtetik gorako pertsona guztien hartz markak gordetzen diren.

²⁴ CONSEJO EUROPEO. (2002). Propuesta de Plan Global para la lucha contra la inmigración ilegal y la trata de seres humanos en la Unión Europea. 24-34. 30. orrialdea.

²⁵ CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (24 de Septiembre de 2008). Pacto europeo sobre inmigración y asilo. Bruselas. 10. orrialdea.

²⁶ MORA CABO, J. (Abril - Junio de 2012). «Centros de Internamiento de Extranjeros». *Tribuna*(185), 65-67. 65. orrialdea.

²⁷ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J. (2002). *La inmigración y el asilo en la Unión Europea - Hacia un nuevo espacio de libertad, seguridad y justicia*. Madrid: Colex. 145-146 orrialdeak.

3.2.1.2 Koordinazio agentzien sorrera eta kudeaketa

Koordinazio agentziak, beharrezko egiten dira Schengen Akordioa martxan jartzen den momentutik, kanpo mugetako jarduera eta kontrol bateratua eramatea ezinbesteko elementu dela ulertzen baita EBren funtzionamendu egokirako.

Behar hori, Frontex (Agencia Europea para la gestión de las fronteras exteriores) antolakundearen bitartez betetzen da, sorrera 2004ko urriaren 26an Luxenburgon garatutako 2007/2004 erregelamenduan duena.

Koordinazio horren bitartez, kanpo mugen kontrolerako gestioan efikazia, kalitatea eta bateratasuna lortu nahi da (CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA, 2004)²⁸. Garrantzi handiko helburuak esleitzen zaizkionez, finantzaziorako eremu zabala aurreikusten da.

Oinarrizko diru sarrera, Europar Batasunaren aurrekontu orokorretan esleitutakoa izango bada ere, EBren barne dagoen edozein estatuk eta Schengen Akordioaren barne dauden bestelakoek, bere borondatez, diruzko aportazioa emateko aukera izango dute. Horretaz gain, Agentziak eskaintzen dituen zerbitzuengatik, tasak jasotzeko aukera izango du. (CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA, 2004)²⁹.

2005eko maiatzaren 11n indarrean sartu zen erregelamendu honen bitartez, Frontex agentzia lanean hasi zen, lehen urterako 6 milioi euroko presupuestoa izan zuelarik. Aurrekontua ordea, handitzen joan da, 2008-2013 urte bitartean, 676 milioi eurotara iritsi delarik (AGIRRE, RUIZ, & CANTALAPIEDRA, 2015)³⁰.

Frontex agentziaren sorrera erregelamendua ordea, pasa den urtean derogatu zen, irailaren 14ko 2016/1624 erregelamenduaren bitartez. Bertan Mugen eta Kosten Guardia Europarra (*Guardia Europea de Fronteras y Costas*) sortzen da, eta Frontex agentzia bere barne txertatzen du, aurretik zituen funtzioak mantenduz eta honakoak esleituz: mugen gestiorako estrategia operatiboa burutzea eta estatu kideen parte hartzeak koordinatzea.

Mugen eta Kosten Guardia Europarraren helburuak honakoak dira: kanpo mugen gestio integrala, migrazio fluxuen gestio egokia eta segurtasun maila altua bermatzea.

²⁸CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (26 de Urria de 2004). Reglamento (CE) n° 2007/2004. Reglamento (CE) n° 2007/2004 por el que se crea una Agencia Europea para la gestión de la cooperación operativa en las fronteras exteriores de los Estados miembros de la Unión Europea. 1.2 artikulua.

²⁹ *Ibidem*. 29.1 artikulua.

³⁰ AGIRRE, A., RUIZ, M., & CANTALAPIEDRA, M. (2015). «La visibilidad de los Centros de Internamiento de Extranjeros: dinamicas entre el movimiento asociatibo y los periodistas». *Revista Latina de Comunicación Social*(70), 913-933. 914. orrialdea.

Aipatu beharra dago Eurosur (Sistema Europeo de Vigilancia de Fronteras) sistemaren sorrera. 1052/2013 Erregelamenduaren bitartez osatzen da, Estatuaren arteko koordinazioa eta hauek Frontex agentziarekin duten harremana hobetzeko asmoz (EUROPAKO PARLAMENTU eta KONTSEILUA, 2013)³¹.

Eurosurren bitartez, mugen zeharkatze irregularra kontrolatu, identifikatu eta interzeptatu nahi da, immigrazio ilegalari eta mugaz haraindiko delinkuentziari aurre egiteko (EUROPAKO PARLAMENTU eta KONTSEILUA, 2013)³². Hori eginez, Frontexen gaitasun operatiboa handituko dela kontsideratzen da, itsas mugetan ematen ari diren gertakari larriak gelditu edo saihestea lortuz eta bestelako funtzioak egokiago burutuz (EUROPAKO PARLAMENTU eta KONTSEILUA, 2013)³³.

3.2.1.3 Muga fisikoak eraikitzea

Azkenik, Europar Batasunaren araudian adierazten ez den arren, azken urteetan kanpo muga ezberdinetan hesiak eraiki direla jakina da (GARCÍA MACÍAS & SIGALA VACIO, 2016)³⁴, immigrazio irregularren kontrako neurri moduan. Horren adibide ditugu Grezia eta Turkiaren artean eraikitako 12,5 kilometrotako hesia (3 milioi euroko kostua izan zuena eta EBk finantzatutakoa); Turkia eta Bulgaria arteko 30 kilometrokoa; Hungaria eta Serbiaren arteko 175 kilometrotako hesia; eta nola ez Ceuta eta Melillan kokatu diren hesiak.

3.2.2 Kontrolen esternalizazioa

Kanpo mugak kontrolatzeaz gain, EBk bestelako bitartekoak ere erabiltzen ditu immigrazio irregularari aurre egiteko. Bitarteko horien barruan dago kontrolen esternalizazioa, EBtik eta Schengen akordiotik kanpo dauden eta immigrazio irregularrak igarotze herrialde moduan erabiltzen dituen estatuarekin akordioak burutzea, bertan immigrazioa geldiarazteko.

Akordio horien bitartez, Europar Batasunak migrazio fluxuak kontrolatzeko obligazioa ezartzen die hirugarren estatuari, laguntza ekonomikoak jasoko dituztelarik beharrezko jardunak aurrera eraman ahal izateko. Jardun horien parte izango dira mugen gestioa hobetzeko neurriak hartzea, aberriratzeko burutzea eta artatze zentroak sortzea.

³¹ PARLAMENTO EUROPEO Y CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (22 de octubre de 2013). 1052/2013 Erregelamendua. Estrasburgo. Considerando N°1.

³² *Ibidem*. 2.1 Artikulua.

³³ *Ibidem*. Considerando N°2.

³⁴ GARCÍA MACÍAS, P., & SIGALA VACIO, S. A. (enero-junio de 2016). El bunker de la Europa «sin fronteras» (los seis muros de la vergüenza). *Migración y Desarrollo*, 14(26), 197-207. 199. orrialdea

3.2.2.1 Mugen gestioa

Adibide moduan, mahai gainera ekar dezakegu Europako Komisioak Mauritaniarekin burututako akordioa, zeinaren bitartez 2,45 milioi euroko diru laguntza esleitzen zaion honi, lur eta itsas mugen gestioan hobetze bidean edota 2008an herrialde berari esleitzen zaizkion 8 milioi euroak, migrazio fluxuen gestiorako. (COMISIÓN ESPAÑOLA DE AYUDA AL REFUGIADO, 2008)³⁵

3.2.2.2 Artatze Zentroak

Europar Batasunaren finantzazioz rremu hauek sortzeko eta gestionatzeko aukera, Europako Kontseiluko Immigratio Ilegalaren eta Gizakien Salerosketaren kontrako borrokarako Egitasmo Globaleko Proposamenean (CONSEJO EUROPEO, 2002)³⁶ aurreikusten da.

Emigranteen Artatze Zentroak, Europar Batasun barnean dauden Barneratze Zentroen antzekoak dira. Beren bitartez, EBra joan nahi duten emigranteak igarotze herrialdeetan atxilotzen dira, barneratuak izanik beren herrialdeetara eramane bitartean.

Mauritaniarekin jarraituz, Nouadhibou herrian Espainiar Estatuak finantzatzen duen zentroa dago, “guantanamo” bezela ezaguna dena. Bertan ematen den arazo larriena, legislazio eza da, izan ere, Mauritaniar ez da existitzen hirugarren estatu batera joaten saiatzen ari den pertsona baten atxilotzea aurreikusten duen legerik, eta ondorioz, ez dago atxilotetaren gehienezko eperik ez eta bestelako babes juridikorik. (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2009)³⁷

Legez kanpoko egoera horri, instalazioen eta bestelako baliabide material eta sozial falta gehitu behar zaio. Aldaketa beharra ikusten badute ere, Mauritaniako agintaritzak Espainiar Estatuaren erantzukizunaren menpe uzten du zentroa, izan ere “*es una actuación que realizan a petición expresa del gobierno español por lo que quedan a la espera de lo que este solicite o decida sobre el futuro del centro*” (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2009)³⁸

³⁵ COMISIÓN ESPAÑOLA DE AYUDA AL REFUGIADO. (10 de Diciembre de 2008). Informe de Evaluación del Centro de Detención de Migrantes en Nouadhibou (Mauritania). Madrid. 9. orrialdea.

³⁶ CONSEJO EUROPEO. (2002). Propuesta de Plan Global para la lucha contra la inmigración ilegal y la trata de seres humanos en la Unión Europea. 24-34. 54. paragrafoa.

³⁷ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2009). «Inmigración, Derechos Humanos y política Criminal: ¿Hasta dónde estamos dispuestos a llegar?». *InDret*. 6. orrialdea.

³⁸ *Ibidem*. 6-7. orrialdeak.

3.2.2.3 Aberriratzeak

Atxilotuak izan diren emigranteak beren jatorrizko herrialdeetara bideratuak dira, berriz ere, kostu guztiak EBk ordaintzen dituelarik.

3.3 Immigrante irregularren kontrola

Immigrante irregularrak, EBko kanpo mugak gainditu eta estatu batera sartzea lortzen duenean, bestelako politika batzuk aplikatuko zaizkio, mugetatik kanporatzeko helburu izango dutenak. Espainiar estatuaren kasuan, honako bi politika zehatzek, emigranteekiko dagoen jarrera eta gestioa azaleratzen dute.

3.3.1 Perfil etnikoen erabilera

Honela definitzen dute Margarita Martínez eta José Miguel Sánchez autoreek perfil etnikoen erabilera poliziaren partetik: *“dirigirse a ciudadanos que, por sus rasgos étnicos o raciales puedan hacer pensar que carecen de nacionalidad española, para solicitarles su documentación.”* (MARTÍNEZ ESCAMILLA & SÁNCHEZ TOMÁS, 2011)³⁹ Ikusten dugunez, definizio horren arabera, poliziaren jarduna azalaren edota bestelako arraza ezaugarrien arabera ezberdina izango litzake.

Jardun diskriminatzaile hori Poliziaren Sindikatu Unifikatuak salatu zuen, adieraziz araubideak jasotzen dituztela emigrante ugari mugitzen diren eremuetan “sarekadak” egiteko, dokumentazio gabe dauden pertsonak atxilotze bidean. (MARTÍNEZ ESCAMILLA & SÁNCHEZ TOMÁS, 2011)⁴⁰

Mutuma Ruteere (Nazio Batuen arrazismoaren, arrazagatiko diskriminazioaren, xenofobiaren eta beste intolerantzia moten ordezkariak) 2013ko urtarrilean Espainiar Estatura egindako bisitan, jarduera hauekiko kezka azaldu zuen, arazo moduan identifikatuz talde etnikoei bideratutako identifikazioak. (RUTEERE, 2013)⁴¹

³⁹ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M., & SÁNCHEZ TOMÁS, J. (2011). «Controles de identidad, detenciones y uso del perfil étnico en la persecución y castigo del inmigrante "sin papeles": ilegalidad e inconstitucionalidad de determinadas prácticas policiales». *INMIGRAPENAL (Grupo Inmigración y Sistema Penal*. 12. orrialdea.

⁴⁰ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M., & SÁNCHEZ TOMÁS, J. (2011). «Controles de identidad, detenciones y uso del perfil étnico en la persecución y castigo del inmigrante "sin papeles": ilegalidad e inconstitucionalidad de determinadas prácticas policiales». *INMIGRAPENAL (Grupo Inmigración y Sistema Penal*. 2-3 orrialdeak.

⁴¹ RUTEERE, M. (28 de enero de 2013). Texto íntegro de la declaración de prensa del Relator Especial de las Naciones Unidas sobre las formas contemporáneas de racismo, discriminación racial, xenofobia y otras formas conexas de intolerancia. Madrid. 3. orrialdea.

3.3.2 Atxiloketak

Perfil etnikoen erabilera edo bestelako egoeretan suertatzen diren identifikazioen (edo hauen saiakeren) ondorioz, atzerritarren identifikazioa burutzea ezinezkoa balitz, Gobernu-agintariak edo horren agenteek komisaldegira eraman ahalko dute (4/2015 Lege Organikoa)⁴². Bertan, espainiar estatuan irregularki dagoela ziurtatu ondoren, agenteak kanporatze espediente bat irekiko du⁴³

Kanporatze espedientea exekutatu ahal izateko, agenteak kautela neurriak ezarri ahalko ditu (4/2000 Lege Organikoa)⁴⁴: Agintari eskudunen aurrera aldizkako aurkeztea; Nahitaez toki jakin batean bizitzea; Pasaportea edo naziotasuna egiaztatzekeo agiria kentzea, aurretiaz interesdunari neurri hori egiaztatzen duen gordekina emanda; Kautelazko atxilotzea; Prebentziozko barneratzea.

3.4 Aberriratzeak

“Estatu kideen lurraldean dauden immigrante irregularrek, bertan egoteari utzi behar diote”, hori adierazi zuen Europar Batasuneko Kontseiluak 2008an argitaratutako “Pacto Europeo sobre inmigración y asilo” dokumentuan (CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA, 2008)⁴⁵ Izan ere, Europar Batasunak, emigrante guztiak modu duin batean artatzeko baliabiderik ez duela kontsideratzen du (CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA, 2008)⁴⁶

Hori lortzeko, aberriratze politikak aurrera eramatea ezinbestekoa da (CONSEJO EUROPEO, 2002)⁴⁷. Europar Batasunak borondatezko itzultzea lehenesten duen arren, derrigorrezko itzultzea gauzatu ahalko da, beti ere giza eskubideen errespetua bermatuz

⁴² 4/2015 Lege Organikoa. (30 de Martxo de 2015). *Ley Organica 4/2015, de protección de la seguridad ciudadana(77)*, 27216-27434. 16.2 artikulua.

⁴³ Lan honetako 4.1.1 Barneratzea atalean ikusiko dugu, zein kasutan aplikatzen den multa zigorra (berez, urraketa administrativo honetarako aurreikusia dagoena) edota kanporatzea (zigor horren ordezkoa).

⁴⁴ 4/2000 Lege Organikoa. (11 de Urtarrila de 2000). 4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa(10). 61.1 artikulua.

⁴⁵ CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (24 de Septiembre de 2008). Pacto europeo sobre inmigración y asilo. Bruselas. 7. orrialdea.

⁴⁶ *Ibidem*. 3. orrialdea.

⁴⁷ CONSEJO EUROPEO. (2002). Propuesta de Plan Global para la lucha contra la inmigración ilegal y la trata de seres humanos en la Unión Europea. 24-34. 31. orrialdea, 69. paragrafoa.

(KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA, 2011)⁴⁸ eta (KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA, 2002)⁴⁹.

Garrantzi hori oinarri harturik, Europako Kontseiluko Immigrazio Ilegalaren eta Gizakien Salerosketaren kontrako borrokarako Egitasmo Globaleko Proposamenak (CONSEJO EUROPEO, 2002)⁵⁰, immigrante irregularren aberriratzea aurrera eramateko proiektuak EBko diruz finantzatzeko aukera irekitzen du.

Aberriratze politiken arloan, 2008/115/CE Zuzentarauaz, (Itzulera Zuzentarau edo *Directiva de Retorno* moduan ezaguna dena) hitz egitea ezinbestekoa da.

Bertan, egoera irregularrean dagoen pertsona bati aplikatuko zaizkion aberriratze neurriak azaltzen dira, baita aberriratze hori posible egiteko hartu daitezken bideak (barneratzea kasu).

3.4.1 Aberriratzea nola?

Lehenik eta behin, itzultzea posible izateko, hirugarren estatuarekin akordioak lortu behar dira, horiek komunitarioak edo bilateralak izan daitezkelarik. (EUROPAKO PARLAMENTU ETA KONTSEILUA, 2008)⁵¹ Akordio komunitarioak EBk burutzen dituenak izango dira, eta bilateralak EBko estatu kide batek hirugarren estatu batekin egindakoak.

Behin akordioa buruturik, aberriratzea egin ahal izateko, kanporatze espedientea burutu beharko da, eta ondoren, itzultze erabakia pertsonari komunikatu beharko zaio (EUROPAKO KONTSEILUA, 2004)⁵².

⁴⁸ KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA. (2011.eko apirilak 25). Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones - Enfoque global de la migración. *Dictamen del Comité Económico y Social sobre la «Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones - Enfoque global de la migración»*. Bruselas. 135. orrialdea, 1.16 paragrafoa.

⁴⁹ KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA. (25 de Abril de 2002). Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo relativa a una política común de inmigración ilegal. *Dictamen del Comité Económico y Social sobre la «Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo relativa a una política común de inmigración ilegal»*, 79-83. Bruselas. 83. orrialdea, 1.9.1 paragrafoa.

⁵⁰ CONSEJO EUROPEO. (2002). Propuesta de... *Op. Cit.* 31. orrialdea 54. paragrafoa.

⁵¹ EUROPAKO PARLAMENTU ETA KONTSEILUA. (2008.eko Abenduak). Directiva 2008/115/ce del Parlamento Europeo Y el Consejo de la Unión Europea, relativa a normas y procedimientos comunes en los Estados miembros para el retorno de los nacionales de terceros países en situación irregular. 98-107. Estrasburgo. 98. orrialdea, 7. paragrafoa.

⁵² CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (29 de Abril de 2004). Decisión del Consejo, relativa a la organización de vuelos conjuntos para la expulsión, desde el territorio de dos o más Estados miembros, de nacionales de terceros países sobre los que hayan recaído resoluciones de expulsión. Luxemburgo. 28-30. Anexo (Directrices comunes sobre las normas de seguridad en las expulsiones conjuntas por vía aérea), 2.1.b puntua.

Hori egin denean, lurrezko, urezko edo airezko garraio bat erabiliz, atzerritarra aipaturiko estatu batera eramango da. Garraiobide horiek, modu koordinatuan gauzaten dituzte EBko estatuak (CONSEJO EUROPEO, 2002)⁵³, kanporatzeak koordinatuz eta gestioaren gastuak murriztuz. Horren adibide dugu hegazkinen koordinazioa eta horretarako kaleratutako Kontseiluaren apirilaren 24ko erabakia (EUROPAKO KONTSEILUA, 2004)⁵⁴.

3.4.2 Aberriratzea nora?

Egoera irregularrean dauden atzerritarren aberriratzea bermatu behar dela adierazten da bai 2008/115/CE zuzentarauan bai Europako Kontseiluak osaturiko Immigrazio eta Asiloaren inguruko Itunean. Kontuan hartu beharra dago ordea, aipatu moduan, borondatezko edo derrigorrezko itzulera horiek, jatorrizko estatura ala igarotze estatu batera burutu ahalko direla.

Horretarako, hirugarren estatuarekin lorturiko akordioan, zehaztua egon beharko da, beren estatuko kide ez diren atzerritarrak onartzeko prest agertzen dela (EUROPAKO PARLAMENTU ETA KONTSEILUA, 2008)⁵⁵.

“Combatir la inmigración irregular, garantizando, entre otras cosas, el retorno a su país de origen o a un país de tránsito de los extranjeros en situación irregular” (CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA, 2008)⁵⁶.

3.4.3 Turkiaren kasu berezia

Europar Batasunak, 2016ko martxoaren 7an, akordio oso ezagun eta polemiko bat lortu zuen Turkiar Estatuarekin. Akordio horren helburuak, 18an publikaturiko deklarazioaren (EUROPAKO KONTSEILUA, 2016)⁵⁷ arabera, EBra iristen ari ziren immigrante irregularren kopurua jaistea eta bide batez, Greziak jasandako presio ekonomiko eta sozialari aurre egitea ziren.

⁵³ CONSEJO EUROPEO. (2002). Propuesta de Plan Global para la lucha contra la inmigración ilegal y la trata de seres humanos en la Unión Europea. 24-34.

⁵⁴ CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (29 de Abril de 2004). Decisión del Consejo, relativa a la organización de vuelos conjuntos para la expulsión, desde el territorio de dos o más Estados miembros, de nacionales de terceros países sobre los que hayan recaído resoluciones de expulsión. 28-30.

⁵⁵ PARLAMENTO EUROPEO Y CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (2008 de Diciembre de 2008). Directiva 2008/115/ce del Parlamento Europeo Y el Consejo de la Unión Europea, relativa a normas y procedimientos comunes en los Estados miembros para el retorno de los nacionales de terceros países en situación irregular. 98-107. Estrasburgo. 101. orrialdea, 3.3 artikulua.

⁵⁶ CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (24 de Septiembre de 2008). Pacto europeo sobre inmigración y asilo. Bruselas. 28. orrialdea.

⁵⁷ CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (18 de Marzo de 2016). Declaración UE-Turquía.

Deklarazio moduan publikatzen den arren, Javier A. González Vega, Zuzenbide Internazional Publikoko Katedratikoak dion modura, tratatu antiformalista baten aurrean gaudela, baino tratatu azken finean, horrek ekarririko efektu juridiko eta lotura denekin (GONZÁLEZ VEGA, 2016)⁵⁸

Horretarako, Turkiak, martxoaren 20tik aurrera herrialdetik Greziarantz abiatutako pertsona guztiak berriz onartzeko adostasuna iragarri zuen, immigrazio fluxuek, EBra, bide berriak hartzea saihestuz.

Europar Batasunak, trukean, proiektu zehatzak aurrera eramateko 3.000 milioi euroko diru laguntza esleituko zuela adierazteaz gain, turkiarrekiko bisa ezabatuko eta herrialdearen adhesiorako negoziazioan aurrera egiteko konpromezua hartu zuen. Horri guztiari, itzulketa operazioa EBren finantzaketaz egingo dela gehitu behar diogu.

Azkenik aipatu beharra dago, publikaturiko deklarazioaren arabera zuzenbide internazionala eta bereziki Europar Batasunekoa (ez itzultzeko printzipioa⁵⁹ betez) momentu oro errespetatuko dela, eta ondorioz, nahiz eta adierazi, Greziara iristen diren atzerritar guztiak (asilo eskubidea dutenak albo batera utziz) kanporatuak izango direla, kanporaketa horiek ez dira kolektiboak kontsideratuko.

4. Atzerritarren Barneratze Zentroak

Honela definitzen du Atzerritarren Barneratze Zentroa (ABZ) Margarita Martínez Escamilla autoreak:

“Los establecimientos públicos, dependientes del Ministerio del Interior, gestionados por la Dirección General de la Policía y vigilados por miembros del Cuerpo Nacional de Policía, donde se mantiene privados de libertad, por un máximo de sesenta días, a los extranjeros en situación irregular a la espera de su expulsión.” (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2013)⁶⁰

⁵⁸ GONZÁLEZ VEGA, J. A. (2016). El marco jurídico internacional y europeo de la acogida de los refugiados y la incidencia de la declaración UE-Turquía. *Errefusiatuen Krisiari buruzko EHuko Udako Kongresuko Kurtsoa*. 33-34. orrialdeak.

⁵⁹ “Los Estados miembros respetaran el principio de no devolución (EUROPAKO PARLAMENTU ETA KONTSEILUA, 2008), 102. orrialdea, 5. artikulua.

⁶⁰ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2013). *Mujeres en el CIE: género, inmigración e internamiento*. Madrid, 5. orrialdea.

ABZen bitartez, beraz, egoera irregularrean dauden atzerritarrei askatasuna mugatzen zaie, zigor administratiboa (estatutik kanporatzea) exekutatzea lortzeko (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2009)⁶¹.

Atzerritarren Barneratze Zentroak, 7/1985 Lege Organikoan arautu ziren lehen aldiz Espainian. Beraren bitartez, egoera irregularrean zeuden, ordena publikoa zein barne segurtasuna arriskuan jartzen zuten edota bizitzeko diru iturri lizitorik ez zuten atzerritarrei, kanporatze espedientea gauzatu eta exekutatu ahal izateko, atxilotu eta barneratzeko aurreikuspena burutu zen (7/1985 Lege Organikoa)⁶².

Egungo legediaren arabera, ordea, honako kasuetan egongo da barneratzea gauzatzeko aukera, beti ere kanporatzea lortze bidean (4/2000 Lege Organikoa)⁶³: Segurtasun nazionalaren kontrako jarduerak burutzea⁶⁴; Immigrazio klandestinoaren sustatu edo laguntzea, irabazteko asmoz⁶⁵; Immigrante irregularra izatea⁶⁶; Segurtasun publikoa arrazoi ezarritako neurriak ez betetzea⁶⁷; Ordena publikoaren kontrako jardueretan parte hartzea⁶⁸; Atzerritarra, espainian urte beteko zigor askatasungabetzaileaz zigortua dagoen deluzko delitu batengatik zigortua izana, Espainian edo kanpoan⁶⁹.

Egun zortzi ABZ dauden martxan Espainiar Estatuan Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalaren arabera: Algeciras, Tarifa, Bartzelona, Las Palmas Kanaria Handikoa (LPKH), Madril, Murtzia, Santa Cruz Tenerifekoa (SCT) eta Balentzia. Ala ere, legez zazpi daudela esan beharra dago, izan ere, Tarifako ABZ, administratiboki Algeciraskoaren barne sail bat da. Horiez gain, Ceuta eta Melillan dauden Aldi Baterako Egonaldiko Zentroak (*Centros de Estancia Temporal*) aipatu beharra daude, errealitateko erradiografia egokia izateko.

⁶¹ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2009). «Inmigración, Derechos Humanos y política Criminal: ¿Hasta dónde estamos dispuestos a llegar?». *InDret*. 26. orrialdea.

⁶² 7/1985 Lege Organikoa. (1985). *7/1985 Lege Organikoa, Atzerritarren eskubide eta askatasunen ingurukoa*, 26.2 artikulua.

⁶³ 4/2000 Lege Organikoa. (2000.eko Urtarrilak 11). *4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa*, 62.1 artikulua.

⁶⁴ *Ibidem*, 54.1.a artikulua.

⁶⁵ *Ibidem*, 54.1.b artikulua.

⁶⁶ *Ibidem*, 53.1.a artikulua.

⁶⁷ *Ibidem*, 53.1.d artikulua.

⁶⁸ *Ibidem*, 53.1.f artikulua.

⁶⁹ *Ibidem*, 57.2 artikulua.

4.1 Araudi aplikagarria

4.1.1 Barneratzea

Espainiar Estatuko araudiaren arabera (4/2000 Lege Organikoa, atzerritarren eskubide eta askatasunen eta beren integrazio sozialaren ingurukoa), era irregularrean estatuko mugen barne egotea, arau hauste administratiboa larria da, 53.1.a) artikuluan aurreikusia dagoena. Mota honetako arau hausteen ondorioz, 501€tatik 10.000€tara bitarteko multa zigorra aplikatuko dela dio 55.1.b) artikulua. Multa zigor hori ordea, kanporatzeagatik alda ahalko da kasu batzuetan.

Modu irregularrean egoteagatik gauzatutako espedienteak, bi prozedura ezberdin jarrai ditzake: prozedura arrunta⁷⁰, non alegazioak eta froga proposamenak egiteko denbora tarte eskaintzen zaion interesatuari, eta kanporatzea ezarriko balitz, borondatez betearazteko epea ezartzen den (MANZANEDO)⁷¹; eta lehentasunezko prozedura⁷², non aipaturiko alegazio eta froga proposamenak egiteko denbora tarteak 48 ordutara murrizten diren (LÓPEZ BENITEZ, 2014)⁷³ eta borondatezko kanporatzea bertan behera geratzen den (MANZANEDO)⁷⁴.

Lehentasunezko prozedura jarraitu beharko du epaileak hiru kasu⁷⁵ hauetako bat ematen dela ulertzen badu: ez agertze arriskua; atzerritarrak kanporatzea zailtzea edo; ordena publikoa, segurtasun publikoa edo segurtasun nazionalarentzat arriskutsua izatea.

Prozedura hau jarraituz, multa zigorra, kanporatzeagatik alda ahalko da 57.1 artikulua arabera, neurria proportzionala dela ulertzen badu epaileak, zigor espediente, kanporatze espediente bilakatuz.

Kanporatze espediente gauzatu eta exekutatu nahi bada, baino ezin bada lehen 72 ordutan burutu, poliziak barneratzea eskatu ahalko dio atxiloketa eman den eremuko instrukzioko epaileari (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2013)⁷⁶. Barneratze eskaria atxiloketa burutu duen poliziak burutuko du eta kontuan hartuko ditu, Poliziaren Zuzendaritza Orokorrak, 6/2014 Zirkularrean zehazturiko elementuak: atzerritar

⁷⁰ *Ibidem*, 63 bis.1 artikulua

⁷¹ MANZANEDO, C. (2011). «Expulsiones forzosas de España: los Centro de internamiento de Extranjeros (CIE)». *En la Calle* (19), 2-4, 2. orrialdea.

⁷² 4/2000 Lege Organikoa... *Op. Cit.* 63.1 artikulua.

⁷³ LÓPEZ BENITEZ, M. (2014). «El nuevo régimen jurídico de los Centros de Internamiento de Extranjeros». *R.V.A.P.*(num. especial 99-100), 1905-1935, 1912. orrialdea.

⁷⁴ MANZANEDO, C. (2011). «Expulsiones... *Op. Cit.* 2. orrialdea.

⁷⁵ 4/2000 Lege Organikoa... *Op. Cit.* 63.1 artikulua.

⁷⁶ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2013). *Mujeres en...* *Op. Cit.* 8. orrialdea.

bakoitzaren egoera pertsonal eta indibidualaren balorazioa (adina, haurdun egotea, lotura familiarrak kasu) eta kanporatzea gauzatzeko aukera erreala (Circular 6/2014)⁷⁷.

Epaileak, interesatuarekin audientzia izan ostean, barneratzearen inguruko erabakia hartuko du, aurretik aipaturiko elementuez gain, bereziki⁷⁸, dokumentazio edo etxebizitza zehatzik ez izatearen ondorioz ez agertze arriskua, kanporatzea zailtzeko egindako jardutea eta aurretiazko kondena edo sartzioak kontuan hartuz. Epailearen erabakiak motibatua izan behar du, kausa horiek ematen diren ala ez arrazoituz⁷⁹. Barneratze Autoa emanaz, prozesua amaitutzat ematen da, eta pertsona ABZra eramaten da.

4.1.2 Barneratze zentroyen funtzionamendua

Atzerritarren Barneratzea, kautela neurri moduan kalifikatzen du 4/2000 Lege Organikoa, 61. artikuluan, izan ere, bertan aurreikusten diren neurrien helburua kanporatzea posible egitea izango da (ABARCA JUNCO, ALONSO-OLEA GARCÍA, LACRUZ LÓPEZ, MARTÍN DÉGANO, & VARGAS GÓMEZ-URRUTIA, 2008)⁸⁰, eta hori kontuan hartuz, osatzen da Atzerritarren Barneratze Zentroyen funtzionamendurako eta barne erregimenerako 162/2014 erregelamendua.

4.1.2.1 Barneratze momentua

Atzerritarra Barneratzen den momentuan, bere eskubide eta obligazioak zeintzuk diren eta zentroko barne araudia azaltzen duen boletín informatibo bat emango zaio, ulergarri zaion hizkuntza batean⁸¹.

Gaixotasun fisiko edo psikikorik edo toxikomaniarik baduen ala ez jakiteko, ikuskapen medikoa⁸² burutuko zaio barneratuari, eta ahal bezain laster zerbitzu sozialeko pertsonalarekin entrebista⁸³ egin.

Barneratzea formalizatzen den momentuan, zentroko arduradunek horren berri emango diote abokatuari eta enbaxada edo kontsulatuari⁸⁴. Gainera, barneratua izan denak estatu

⁷⁷ DIRECCIÓN GENERAL DE LA POLICIA; MINISTERIO DEL INTERIOR. (2014). Circular 6/2014. *Criterios para solicitar el ingreso de ciudadanos extranjeros en los centros de internamiento*, 1 orrialdea

⁷⁸ 4/2000 Lege Organikoa... *Op. Cit.* 62.1 artikulua.

⁷⁹ (162/2014 Erregelamendua) 23.1 artikulua eta (4/2000 Lege Organikoa) 62.1 artikulua.

⁸⁰ ABARCA JUNCO, A.P., ALONSO-OLEA GARCÍA, B., LACRUZ LÓPEZ, J. M., MARTÍN DÉGANO, I., & VARGAS GÓMEZ-URRUTIA, M. (2008). *Inmigración y extranjería: Régimen jurídico básico*. Madrid: COLEX. 143. orrialdea.

⁸¹ 162/2014 Erregelamendua. (2014.eko martxoak 14). *162/2014 Erregelamendua, Atzerritarren Barneratze Zentroyen funtzionamendua eta barne erregimena arautzeko*, 29. artikulua.

⁸² *Ibidem.* 30.1 artikulua.

⁸³ *Ibidem.* 30.3 artikulua.

⁸⁴ *Ibidem.* 31.1 artikulua.

barneko dohako dei bat egiteko aukera izango du bere abokatu, familiar edo konfiantzazko bestelako pertsona batekin harremanetan jartzeko⁸⁵.

Azkenik, pertsonaren baliozko ondasunak zentroko kaxa fuertean gordetzeko⁸⁶ aukera edukiko du. Aldi berean, higie pertsonaleko artikulua, toailak eta oheko arropa eskainiko zaizkio, eta arropa edo oinetako egokiak ez dituela ikusiko balitz, hauek ere eskura jarriko zaizkio⁸⁷.

4.1.2.2 Estruktura⁸⁸

Barneratze Zentro bakoitzak Zuzendaritza, Zuzendari bat, Koordinazio Junta, Segurtasun unitatea, Administrazioa eta Idazkaritza izango dute. Organo horien bitartez, zentroko barne araudia, ordutegiak etab. erabakiko dira eta, atzerritarren eskubideak bermatuko dira eta segurtasuna mantenduko dute (LÓPEZ BENITEZ, 2014)⁸⁹.

4.1.2.3 Zerbitzuak

Zentro hauetan, zerbitzu batzuk derrigorrez eskaini beharko dira, baino ondoren, zentroko arduradunek horiez gain beste batzuk eman ahalko dituzte.

Derrigorrezkoak izango dira⁹⁰:

- I) Osasun asistentzia: mediku eta laguntzaile baten artean emango da, eta beren esku geratuko da ere higie zerbitzuen inspezioa eta elikagaien egokitasun azterketa.
- II) Asistentzia sozial eta kulturala: gizarte langileen bitartez burutuko da. Beren artean, koordinazio juntak onarturiko plan eta proiektuak aurrera eramango dituzte.
Gizarte langile hauek, formakuntza eta jakintza berezitua izan beharko dute giza eskubide, atzerritartasun, babes internazional, mediazio interkultural eta genero ikuspegian.
- III) Asistentzia juridikoa: ABZen eremuko abokatu elkargoekin akordioak burutuz gauzatuko da.

⁸⁵ *Ibidem*.31.2 artikulua.

⁸⁶ *Ibidem*.28.2 artikulua.

⁸⁷ *Ibidem*.32. artikulua.

⁸⁸ *Ibidem*.8-13 artikulua.

⁸⁹ LÓPEZ BENITEZ, M. (2014). «El nuevo régimen... 1923. orrialdea.

⁹⁰ 162/2014 Erregelamendua... *Op. Cit.* 14-15 artikulua.

4.1.2.4 Elkarbizitza arauak

ABZetan, elkarbizitza egonkor eta egoki bat aurrera eramán ahal izateko, neurri edo arau batzuk izatea beharrezko dela ulertzen da. Neurri horien artean ditugu barne araudiak zehaztu beharreko ordutegiak. Bertan bisitak, higieñe pertsonala, komunikazio telefonikoa, deskantsua edota aisialdia bezalako jarduerak noiz egin zehazten da.

Ordutegiez gain, bisiten denbora tartea, pertsona kopurua edota bisita horiek emateko modua ere barne araudi horretan aurreikusiak egon beharko dira.

4.1.2.5 Instalazioak⁹¹

Zentroko instalazioek, irisgarritasun, higieñe eta bizigarritasun baldintzak (espazioa, bentilazioa, ura, argitasuna eta kalefazioa) baldintzak bete behar dituzte, beti ere, tokiko eguraldiari egokituak egon beharko direlarik. Instalazioak ere, prest egon beharko dira aisialdi edota kirol jarduerak burutzeko.

Eremu egokiaz gain, mobiliarioa ere nahikoa eta egokia izan beharko da, beharrezkoa delarik telefono publikoak bermatzea.

Azkenik, aipatu beharra dago, sexuaren araberako banaketa modulu independenteen bitartez gauzatuko dela eta unitate familiarren intimitatea babesteko ahalegina egingo dela.

4.1.3 Barneratze Zentroen ezaugarriak

Atzerritarren Barneratze Zentroek ez dute izaera penitentziariorik, bertan pertsonak izatearen helburu bakarra kanporatzea gauzatzea delarik.⁹² Haien gaineko kompetentzia, Barne Ministeritzari dagokio, baino Poliziaren Zuzendaritza Orokorrak gauzatuko du eskumen hori, eta aldi berean bertako segurtasun eta bigilantzia burutuko du.⁹³ Kompetentzia horren ondorioz, Barne Ministeritzari egokituko zaio zentro hauen sorrera, aldaketa edo itxiera.⁹⁴

Zentroetako hauetako eginbide guztiak, proportziozkotasun printzipioa⁹⁵ jarraituz burutu behar dira, bilatzen den helburu eta horretarako erabilitako tresnak kontuan izanik.

⁹¹ *Ibidem.* 7. artikulua.

⁹² 4/2000 Lege Organikoa, 62 bis artikulua eta 162/2014 Erregelamendua, 1.3 artikulua.

⁹³ 162/2014 Erregelamendua... *Op. Cit.* 3. artikulua.

⁹⁴ *Ibidem.* 5.1 artikulua.

⁹⁵ *Ibidem.* 1.4 artikulua.

ABZen bitartez, ukatzen den eskubide bakarra zirkulazio askatasunarena da⁹⁶, baina segurtasun neurriak⁹⁷ ezartzen dira, ulertuz hauek ezinbestekoak direla zentroko ordena eta barneratutako pertsonen segurtasuna mantentzeko.

Segurtasun neurri horiek oso anitzak dira. Batetik zentroaren eta bertako sarreren inspektzioak burutu ahalko dira (logelak, komunak eta bestelako eremu intimoak alde batera utziz, momentu puntualetan horiek ere inspektionatu⁹⁸ ahalko diren arren). Bestetik, barneratutako pertsonen bigilantzia egingo da, eta beharrezkoa balitz, erregistro pertsonala ere burutu ahalko da.

Neurri hertsatzaileak⁹⁹ ere erabiltzeko aukera ematen du erregelamenduak, norbere buruarekiko edo hirugarrenetik jarraera biolentoak deusezteko, ihesaldiak saihesteko, zentroko instalazioak babesteko etab. Horien artean, pertsona lekuan mantentzeko neurri fisikoak erabiltzeko edo aislamendu probisionalean jartzeko aukera egongo da.

4.1.4 Atzerritarren babes neurriak

4.1.4.1 Kanporatze espedientearekiko

Kanporatzea, zigor administratiboa izanik, espedientearen aurka epaitegi kontentzioso-administratiboan errekurtsua ezartzeko aukera egongo da.

Ala ere, tamalez, esan beharra dago orokorrean, babes neurri honek ez duela bere funtzioa betetzen. Izan ere, autoritateek errekurtsua ezarria egonda ere, exekutatu egite dute kanporatzea, errekurtsua aztertu gabe denean oraindik. (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2013)¹⁰⁰

4.1.4.2 Barneratzearekiko

Barneratzea, instrukzioko epailearen erabaki judiziala izanik¹⁰¹, errekurtsua ezartzeko aukera egongo da ere, babes judiziala gauzatuz. Ala ere, erregelamenduak bestelako babes neurriak ezartzen ditu, barneratua den pertsonaren eskubideak babeste bidean.

⁹⁶ 4/2000 Lege Organikoa... *Op. Cit.* 62 bis artikulua.

⁹⁷ 162/2014 Erregelamendua... *Op. Cit.* 53.1 artikulua.

⁹⁸ 4/2000 Lege Organikoa... *Op. Cit.* 62 quinquies.

⁹⁹ 162/2014 Erregelamendua... *Op. Cit.* 57. artikulua.

¹⁰⁰ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2013). *Mujeres en el CIE: género...* *Op. Cit.* 8. orrialdea.

¹⁰¹ 162/2014 Erregelamendua... *Op. Cit.* 2.1 artikulua.

4.1.4.2.1 Denborazko babesa:

Barneratzea, legez, ezingo da 60 egun¹⁰² baino gehiagoz luzatu¹⁰³. Ala ere, badaude bi aukera gehienezko muga horretara ez iristeko: epaileak epe hori baino motzagoa den bat ezartzea¹⁰⁴; eta kanporatzea eman ezingo dela kontsideratzen denean pertsona aske uztea (ABARCA JUNCO, ALONSO-OLEA GARCÍA, LACRUZ LÓPEZ, MARTÍN DÉGANO, & VARGAS GÓMEZ-URRUTIA, 2008)¹⁰⁵.

4.1.4.2.2 Babes judiziala:

Barneratzea kautela neurria den arren, askatasungabetzailea da, eta ondorioz babes berezia eskaintzen dio bai Lege Organikoak eta baita erregelamenduak. Horregatik, barneratze epaileaz gain, neurria baimendu eta deusezteko gaitasuna duena (LÓPEZ BENITEZ, 2014)¹⁰⁶, egonaldiaren kontroleko epailea zehaztuko da, zentroko pertsonen eskari eta kexak ezagutu eta bideratuko dituen eta beren eskubideak bermatzen direla kontrolatuko duena. Biak instrukzioko epaileak izango dira, lehena atxiloketa ematen den lekukoa eta bigarrena ABZ kokatzen den eremuko¹⁰⁷.

4.1.4.2.3 Inspekzioak:

Botere polizialak inspekzioak burutu ahalko ditu Atzerritarren Barneratze Zentroetan, zentroak edota bertako pertsonalak dagozkien funtzioak betetzen dituztela ziurtatzeko¹⁰⁸

4.1.4.2.4 Non bis in idem:

“*No podrá acordarse un nuevo internamiento por cualquiera de las causas previstas en el mismo expediente*” (ABARCA JUNCO, ALONSO-OLEA GARCÍA, LACRUZ LÓPEZ, MARTÍN DÉGANO, & VARGAS GÓMEZ-URRUTIA, 2008)¹⁰⁹.

Printzipio honen aplikazioz, ezingo da barneratua egon den pertsona bat, espedienteko kausa berdinengatik bigarren aldiz barneratu, nahiz eta lehenengoan 60 eguneko

¹⁰² Ibidem., 21.2 artikulua.

¹⁰³ Epe hau lehen 40koa zen arren, 115/2008 Zuzentarauaren aplikazioz aldatu egin zen.

¹⁰⁴ 162/2014 Erregelamendua... *Op. Cit.* 21.2 artikulua.

¹⁰⁵ ABARCA JUNCO, A.P., ALONSO-OLEA GARCÍA, B., LACRUZ LÓPEZ, J. M., MARTÍN DÉGANO, I., & VARGAS GÓMEZ-URRUTIA, M. (2008). *Inmigración y...* 143. orrialdea.

¹⁰⁶ LÓPEZ BENITEZ, M. (2014). «El nuevo régimen ... 1926 orrialdea.

¹⁰⁷ 4/2000 Lege Organikoa... *Op. Cit.* 62.6 artikulua.

¹⁰⁸ 162/2014 Erregelamendua... *Op. Cit.* 50.1 artikulua.

¹⁰⁹ ABARCA JUNCO, A. P., ALONSO-OLEA GARCÍA, B., LACRUZ LÓPEZ, J. M., MARTÍN DÉGANO, I., & VARGAS GÓMEZ-URRUTIA, M. (2008). *Inmigración y...* *Op. Cit.* 143. orrialdea.

epealdia ez bete¹¹⁰. Arrazoi ezberdinak medio, 60 egunak bete bitarteko bigarren barneratzea ordea, posible izango da.

Hori kudeatze bidean, erregelamenduan¹¹¹ adierazten da aske geratzen diren pertsona guztiei barneratuta pasa duten denbora kopurua adierazten duen dokumentua emango zaiela irtetean.

4.1.5 Atzerritarren eskubideak

Barneratze Zentroetan dauden atzerritarrek, honako eskubideak¹¹² izango dituzte: informatua izateko eskubidea, beren bizitza, osotasun fisiko eta osasuna errespetatu eta bermatzeko eskubidea, ordenamendu juridikoak esleitutako eskubideez baliatzeko, bereziki babes internazionala eskatzen denean edota genero biolentzia, trata edo biolentzia sexuala pairatu denean eskubidea, asistentzia mediko, sanitario eta soziala izateko eskubidea, haurdun dauden emakumek, jarraipen mediko berezia izateko eskubidea, bere abokatua, kontsulatu edo enbaxada eta konfiantzazko pertsona bere barneratzeari buruz abisatuak izateko eskubidea, abokatua izateko eta berarekin pribatasunean komunikatzeko eskubidea, bisitak izateko eskubidea, barneratze momentuan, bi dei telefoniko egiteko eskubidea, kexa eta eskariak aurkezteko eskubidea.

4.1.6 Atzerritarren betebeharrak

Atzerritarren Barneratze Zentroetan dauden pertsonak honako betebeharrak¹¹³ izango dituzte: zentro barnean egoteko betebeharra, barne araudiko arau eta bestelako instrukzioak betetzeko betebeharra, jarrera zibiko egokia izateko eta errespetuz jokatzeko betebeharra, instalazio, material eta mobiliarioa egoki mantentzeko betebeharra, barneratze eta irtete momentuan ikuskapen medikoa izateko betebeharra.

4.2 Eskubideen urraketak

“Derechos fundamentales son aquellos derechos humanos garantizados por el ordenamiento jurídico positivo, en la mayor parte de los casos en su normativa constitucional, y que suelen gozar de una tutela reforzada” (BALAGUER CALLEJÓN,

¹¹⁰ Honela ebatzi zuen STS 807/2015 epaiak, erregelamenduko 21.3 artikulua zati bat nulo deklaratu.

¹¹¹ 162/2014 Erregelamendua... *Op. Cit.* 37.4 artikulua.

¹¹² 4/2000 Lege Organikoa, 62 bis artikulua eta 162/2014 Erregelamendua, 16. artikulua.

¹¹³ 4/2000 Lege Organikoa, 62 ter artikulua eta 162/2014 Erregelamendua, 18. artikulua.

CÁMARA VILLAR, LÓPEZ AGUILAR, BALAGUER CALLEJÓN, & MONTILLA MARTOS, 2012)¹¹⁴

Aurreko atalean aipatu dugu, barneratzearen bitartez zirkulazio librerako eskubidea soilik urratu daitekela, barneratzea kautela neurria izanik, proportzioskotasun printzipioaren kontrakoa litzakelarik bestelako eskubide eta oinarritzko eskubideak deuseztatu edo urratzea.

Praktikan ordea, Barneratze Zentroen arloan existitzen diren epai eta kexa kopuruak, Konstituzioko 13.1 artikulua Atzerritarrei aitortzen dizkien eskubideetako askoren urraketa gunea dela adierazten digu, horietako batzuk oinarritzko eskubideak direlarik.

4.2.1 Askatasun Pertsonala eta Tutela Judizial efektiboa

Honela definitzen ditu Joaquín García Morillo autoreak bi eskubide hauek:

“La libertad, es uno de los más preciados bienes del ser humano, son atributos específicos de la persona, directamente vinculados con su capacidad de obrar y actuar libremente y de no ser conminada a realizar aquello que no desea” (LÓPEZ GUERRA, ESPÍN, GARCÍA MORILLO, PÉREZ TREMP, & SATRÚSTEGUI, 2016)¹¹⁵.

“El artículo 24 de la CE reconoce a todas las personas el derecho a obtener la tutela efectiva de jueces y tribunales en el ejercicio de sus derechos e intereses legítimos. De esta forma, se consagra el derecho a acceder a los órganos jurisdiccionales para la defensa de los propios derechos e intereses” (LÓPEZ GUERRA, ESPÍN, GARCÍA MORILLO, PÉREZ TREMP, & SATRÚSTEGUI, 2016)¹¹⁶.

Azalpen horiek ikusirik argi geratzen da, garrantzi handiko bi oinarritzko eskubideren aurrean gaudela. Azter ditzagun eskubide horiek urratuak izan diren kasu batzuk.

4.2.1.1 STC 144/1990, irailaren 26koa

Auzitegi Konstituzionalak emandako 144/1990 sententzian, Madrileko Instrukzioko epaitegiko lehen zenbakiko bi auto (1989ko otsailaren 25ekoa eta martxoaren 2koa) eta

¹¹⁴ BALAGUER CALLEJÓN, F., CÁMARA VILLAR, G., LÓPEZ AGUILAR, J. F., BALAGUER CALLEJÓN, M. L., & MONTILLA MARTOS, J. A. (2012). *Manual de Derecho Constitucional* (séptima. ed., Vol. II.). Madrid: Tecnos, 31. orrialdea.

¹¹⁵ LÓPEZ GUERRA, L., ESPÍN, E., GARCÍA MORILLO, J., PÉREZ TREMP, P., & SATRÚSTEGUI, M. (2016). *Derecho Constitucional: el ordenamiento constitucional Derechos y Deberes de los ciudadanos* (Vol. I). Valencia: Tirant lo Blanch, 229-231. orrialdeak.

¹¹⁶ LÓPEZ GUERRA, L., ESPÍN, E., GARCÍA MORILLO, J., PÉREZ TREMP, P., & SATRÚSTEGUI, M. (2016). *Derecho Constitucional... Op. Cit.* 313. orrialdea.

Madriko Audiencia Provincialen lehena sekzioan 1989ko martxoaren 14ko autoa errekurritu ziren.

Errekurtsoa Maria Dolores Barleycorn Buila emakume ekuatorianak jarri zuen, zeina otsailaren 23an atxilotua izan zen eta 25ean bere kontrako kanporatze espedientea irekia. Aldi berean, barneratzea eskatu zuen gobernu agintaritzak, guardian zegoen epaitegiak, Madriko lehena instrukzioak, eskaria onartu zuelarik, otsailaren 23an atxiloturiko pertsona denentzat honakoa adieraziz:

“De conformidad con lo dispuesto en el art. 26.2 de la Ley Orgánica 7/1985, de 1 de julio, procede decretar el internamiento de los detenidos arriba indicados en el Centro de internamiento de Extranjeros, a disposición de la excelentísima señora delegada del Gobierno en Madrid, para su posterior expulsión del territorio nacional, por haber cumplido los requisitos exigidos en dicha Ley”

Defentsak, beharrezko errekurtsoak ezarri ondoren, AKra iritsirik, beste batzuen artean, Tutela Judizial Efektiborako eskubidea eta Askatasun Pertsonalerako eta Informatua izateko eskubideak urratuak izan zirela adierazi zuen:

1. Tutela Judizial Efektiborako eskubidea (EK 24.1 eta 2): barneratzeko autoa modu kolektiboan burutua izan zen, otsailaren 23an atxiloturiko pertsona guztien barneratzea onarturik eta pertsona bakoitzaren ezaugarri, egoera edo bestelako elementurik zehaztu gabe.
2. Askatasun pertsonala eta Informatua izateko eskubidea (EK 17.1 eta 17.3): ez da behar bezala informatzen prozeduraz eta dagozkion eskubideez; barneratzea inolako justifikaziorik gabe ematen da, pertsonaren ezaugarriak kontuan hartu gabe.

Auzitegi Konstituzionaleko lehena salak, Ministerio Fiskalak adierazitakoa jarraituz, informazio eskubidearen urraketarik igartzen ez dela adierazten badu ere, Tutela Judizial Efektiboa eta Askatasun Pertsonalerako eskubidea urratuak izan direla kontsideratzen du. Izan ere, barneratze autoa kolektiboa izateaz gain, inolako arrazoiketarik gabea, eta barneratzearen beharrezkotasunaz edo justifikazioaz ezer adierazi gabea dela (115/1987 epaiak zehazturiko betebeharrak bete gabe) ulertzen du. Hori kontuan harturik, errekurrituriko autoen nulitatea deklaritzen du Auzitegiak.

4.2.1.2 STC 169/2008, abenduaren 15ekoa

Auzitegi Konstituzionaleko 2008ko epai honetan, Mokthar A. S.ren kasua aztertzen da, zeinak babes helegitea tarteratzen duen Madileko Instrukzioko 25. epaitegiko 2006ko maiatzaren 25eko eta Madrileko Audientzia Probintzialeko 16. sekzioko 2006ko irailaren 1eko autoa errekurritu zituen.

Mokthar-ek 2004ko abuztuaren 9tik kanporatze agindua martxan zuen, eta abenduaren 14ean exekutatu izan zen. Ondoren, 2006ko martxoaren 22an bigarren aldiz kanporatua izan zen estatutik, Melillako mugatik.

Mokthar A. S., marrokiarra naziokotasunez, 2006ko maiatzaren 22an atxilotu zuen Polizia Nazionalak, eta aurreko kasuetan gertaturikoa ikusirik, marruekosera kanporatzeko eta hori posible izateko barneratzeko eskaria burutu zuen gobernu agintaritzak. Epailak, barneratze eskaria onartu zuen, eta interesatuak errekurtsoa tarteratu zuen. Ala ere, 2006ko ekainaren 6an, kanporaketa exekutatu zen.

Defentsak, beharrezko errekurtsuak ezarri ondoren, AKra iritsirik, beste batzuen artean, Tutela Judizial Efektiborako eskubidea, eta Askatasun Pertsonalerako eskubidea urratuak izan zirela adierazi zuen:

1. Tutela Judizial Efektiborako eskubidea (EK 24.1 eta 2): barneratzeko autoa inolako motibaziorik gabe ezarria izan zen.
2. Askatasunerako eskubidea (EK 17.1): barneratzea inolako justifikaziorik gabe ematen da.

Epailak, Ministerio Fiskalaren bide berean, bi eskubide horiek urratuak izan direla kontsideratzen du, izan ere, barneratze autoak ez du Mokthar-en inguruko inolako zehaztapenik egiten, ez eta espezionalki erabili daiteken kautela neurria aplikatzeko justifikaziorik eskaintzen.

“De la simple lectura del Auto impugnado se desprende que la decisión de internamiento fue adoptada sin explicar las circunstancias concurrentes. Esa ausencia de motivación supone, en si misma, que la privación de libertad del demandante decretada por el Auto de internamiento infringe los derechos fundamentales a obtener la tutela judicial efectiva y a la libertad” (TRIBUNAL CONSTITUCIONAL, 2008)¹¹⁷.

Hori guztia kontuan izanik, errekurrituriko autoen nulitatea galdatzen du Auzitegiak.

¹¹⁷ TRIBUNAL CONSTITUCIONAL. (2008.eko abenduak 15). STC 169/2008. 6. orrialdea.

4.2.1.3 Urraketak adierazten dituzten informeak

Tutela Judizial Efektiborako eskubidean, urraketa ezberdinak ematen direla adierazten du Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalak.

- Algeciras eta Tarifako ABZetan, ez da asistentzia juridikoko zerbitzuan beharrezko zabalpena burutu (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015)¹¹⁸.
- Murtziakoan, 2016. urtean ez da oraindik abokatu elkargoarekin hitzarmenik burutu (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2016)¹¹⁹.
- Bartzelonakoan, abokatuen lanaren harira kexa ezberdinak plazaratu zituzten barneratuek (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2016)¹²⁰.

TPMN ez da urraketa hauek jasotzen dituen organismo bakarra. Margarita Martínez Escamilla Zuzenbide Penaleko Katedradunak, *Mujeres en el CIE: género, inmigración e internamiento* lanean, abokatuen kontakturik jaso ez zuten hiru emakume barneraturen testigantzak jaso zituen. (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2013)¹²¹

Lan honetan, hiru emakume hauek beren egoera juridikoaren inguruko erabateko ezjakintasuna dutela adierazten dute, abokaturen bisitarik edo bestelako komunikaziorik jaso ez dutelarik.

Margarita Martínezek, 2009ko beste lan batean adierazten du, Amnistia Internazionalen arabera, kasu batzuetan ez zela abokatuarekin bilerarik egiten epailearengana joan baino lehenago eta barneratutako pertsonen ez zutela beren esku izaten abokatuaren zenbakia, honekin kontaktuan jarri ahal izateko (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2009)¹²².

Azkenik, Las Palmas Kanaria Handiko 2015eko uztailaren 31ko Autoan, egonaldiaren kontrolerako epaileak, argi adeirazten du ez dela abokatu elkargoarekin akordiorik burutu eta egoera hori konpontzeko, ez dela bestelako asistentzia juridikoa bermatzeko aurrera

¹¹⁸ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2015). Informe anual 2015 del Mecanismo Nacional de Prevención de la Tortura, 47. orrialdea.

¹¹⁹ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2016). Informe anual 2016 del Mecanismo Nacional de Prevención de la Tortura, 55. orrialdea.

¹²⁰ Ibidem, 55. orrialdea.

¹²¹ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2013). *Mujeres en... Op. Cit.* 45-46 orrialdeak.

¹²² MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2009). «Inmigración, Derechos Humanos...» 29. orrialdea.

pausurik eman (JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA, 2015)¹²³.

4.2.1.4 Ondorioak

Aipaturiko bi epaietan (18 urteko epea igarotzen den arren bien artean), eskubide berak arrazoi beraren ondorioz urratuak izan zirela ebatzi zuen Auzitegi Konstituzionalak: epaileak, barneratze autoa, motibazio zantzurik gabe burutzea hain zuzen.

Motibazio falta dagoela adierazten dute, Konstituzioko 120.3 artikuluan¹²⁴ galdaturiko berme bat izanik, epaileak ez duelako kautela neurri gogorrena erabiltzeko beharrezkotasunaren inguruko azalpenik egiten, ezta barneratua izan behar den pertsona eta kasuaren inguruko inolako deskripziorik egiten ere.

Funtsean, behin eta berriz AKk emandako jurisprudentzian errepikatzen den arazo baten aurrean gaude (STC 41/1982 uztailaren 2koa, 96/1995 ekainaren 19koa, 182/1996 azaroaren 12koa, eta nola ez ,115/1987 uztailaren 7koa): epaileak barneratzearen baimen formala emateaz gain, neurri askatasun gabetzailea izanik, beraren kontrol juridikoa ez burutzeak, babesgabezia egoera sortzen duela.

“La resolución judicial, pues, no solo controlará la pérdida de libertad, sino que permitirá al interesado presentar sus medios de defensa, evitando así que la detención presente el carácter de internamiento arbitrario” (TRIBUNAL CONSTITUCIONAL, STC 144/1990, 1990).

Eskaturiko motibazio hori gainera, nahikoa edo egokia izan beharko da (legeak aurreikusten dituen kausak ematen direla azalduz) kautela neurririk murriztaileena aplikatzeko justifikazioa eskainiz:

“El internamiento debe regirse por el principio de excepcionalidad y la libertad debe ser respetada, salvo que se estime indispensable la pérdida de su libertad por razones de cautela o de prevención que habrán de ser valoradas por el órgano judicial” (TRIBUNAL CONSTITUCIONAL, 1990).

Motibazio faltaz gain, mahai gainera ekarri nahi dugu bi epaietan ematen den beste berdintasun elementu bat: epai deklaratiiboak dira biak, aurretiaz jada barneraturiko bi pertsonak kanporatuak izan zirelako.

¹²³ JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA. (31 de julio de 2015). Auto juez de control de instancia, 3. orrialdea.

¹²⁴ Espainiako Konstituzioa, 120.3 artikulua: epaiak arrazoituak izan behar dira.

Izan ere, kanporatzea erabaki administratiboa izanik, ez du bide judizialeko epe berekin jokutzen, ondorioz, oinarrizko eskubide urraketa baten inguruko errekurtoa martxan egon arren, barneratzea erabiliz, kanporaketa exekutatzen da.

Honi guztiari, bestelako lan edo informeen bidez azaleraturiko informazioa gehitu behar diogu: abokatuen bisita eza, abokatu elkargoekin hitzarmen eza... esan genezake egun, badaudela nahikoa zantzu adierazteko kasu batzuetan, epaileen lanak ez duela benetako kontrol funtzioa egikaritzen (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2009)¹²⁵, ez direla beharrezko bitartekoak ezartzen tutela judizial efektiboa bermatzeko, eta ondorioz askatasunerako eskubidea urratzen ari dela Atzerritarren Barneratze Zentroetan.

4.2.2 Duintasuna eta intimitatea

Duintasuna, konstituzioko 10.1 artikuluan esleitzen den balioa da. Honela definitzen du Konstituzio Auzitegiak: *“la dignidad de la persona no se reconoce en nuestra CE como un derecho fundamental sino como un fundamento del orden político y de la paz social”* (TRIBUNAL CONSTITUCIONAL, 1999).

Alberto Oehling de los Reyes, Konstituzio Zuzenbideko doktoreak, duintasuna, interpretazio juridikoa egiteko elementu dela adierazten du, oinarrizko eskubide izatera heldu gabe (OEHLING DE LOS REYES, 2011)¹²⁶

Intimitatea berriz, Konstituzioko 18.1 artikuluan aitortzen den oinarrizko eskubide bat da; pertsonaren bizitzaren eremurik pribatuena osatzen duten elementuak dira (LÓPEZ GUERRA, ESPÍN, GARCÍA MORILLO, PÉREZ TREMP, & SATRÚSTEGUI, 2016)¹²⁷.

Pertsona ororen oinarrizko diren balio eta eskubide hauek, zoritxarrez, kasu batzuetan ez dira bermatuak Atzerritarren Barneratze Zentroetan.

4.2.2.1 Instalazioak

Atzerritarren Barneratze Zentroyen instalazioek, kexa asko jasotzen dituzte, izan ere eta adibide moduan, Tarifako ABZk ez du kalefazorik, pareta batzuk kaltetuak daude eta

¹²⁵ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2009). «Inmigración, Derechos Humanos... *Op. Cit.* 29. orrialdea.

¹²⁶ OEHLING DE LOS REYES, A. (2011). «El concepto constitucional de dignidad de la persona: forma de comprensión y modelos predominantes de recepción en la Europa continental». *Revista Española de Derecho Constitucional*(91), 135-178, 169. orrialdea.

¹²⁷ LÓPEZ GUERRA, L., ESPÍN, E., GARCÍA MORILLO, J., PÉREZ TREMP, P., & SATRÚSTEGUI, M. (2016). «Derecho constitucional, Apartado Los derechos de la esfera personal» ESPÍN, EDUARDO autorea. *Derecho Constitucional: el ordenamiento constitucional Derechos y Deberes de los ciudadanos* (Vol. I) liburuan. Valencia: Tirant lo Blanch. 204. orrialdea.

ondorioz neguan, humedade eta hotz handia egiten duela adierazten dute barneratuek. Administrazioak dio konponketa ez dela bideragarria, baina bitartean irekia eta martxan jarraitzen du (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015)¹²⁸.

Eraikina alde batera utziz, arazoak daude ere altzariarekin, beren egoera ez baita egokia, eta ez dago behar beste aisialdi eta kirolerako material (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015)¹²⁹.

Bartzelona, Madril, Murtzia eta Balentziako ABZetara eginiko bisitetan ere, aisialdi eta kirolerako material nahiko ez dagoela adierazten du TPMNeko informeak, nahiz eta Bartzelonakoan Gurutze Gorriak eramandako materialari esker, egoera eta kantitatea besteetakoa baino egokiagoa den (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2016)¹³⁰.

Las Palmas Kanaria Handiko ABZan ere konpondu gabeko arazo estrukturalak egoteaz gain, abokatuekin edo bestelako bisitekin modu egoki eta duin batean komunikatzeko eremurik ez da existitzen (JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA, 2015)¹³¹

Bukatzeko, komunen eskuragarritasuna arazo bat dela argia da. Izan ere, Madril eta Bartzelonako ABZetan, gelen barnean komunak dituzten bitartean, Murtzia eta Balentzian, ez dute honelakorik, eta barneratuek diote funtzionarioek batzuetan arazoak jartzen dizkietela gauetan horiek erabiltzeko (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2016)¹³².

4.2.2.2 Asistentzia Sozial eta Kulturala

Algeciras eta Tarifako ABZetan, asistentzia sozial eta kulturalerako zerbitzua ez zegoen martxan 2015. urteko TPMNaren inspeksioan (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015)¹³³. Madril, Bartzelona, Murtzia eta Balentziakoetan ordea, Gurutze Gorriaren bitartez eskaintzen da zerbitzu hau.

¹²⁸ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2015)... *Op. Cit.* 49. orrialdea.

¹²⁹ Ibidem, 48-49 orrialdeak.

¹³⁰ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2016)... *Op. Cit.* 58. orrialdea.

¹³¹ JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA... *Op. Cit.* 4. orrialdea.

¹³² MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2016)... *Op. Cit.* 60. orrialdea.

¹³³ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2015)... *Op. Cit.* 46. orrialdea.

Las Palmas Kanaria Handiko ABZan, 2007. urtetik ez da zerbitzu hau eskaintzen, aurreikusirik egon arren aurrekontuan. Gurutze Gorriak ere, ez du inolako jarduerarik burutzen bertan (JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA, 2015)¹³⁴

Ikusten dugu beraz, arlo honetan, erregelamenduan adierazten denaren aurrean, urritasun eta gabezia handia dagoela.

4.2.2.3 Biluzi integraleko erregistroa

Biluzi integrala onartzen zuen erregelamenduko artikulua kontrako errekurtsua ezarri zen 2014. urtean, Auzitegi Gorenak, STS 807/2015 sententziaren bitartez nulitatea ebatzi zuelarik. Izan ere, bertan adierazten den moduan: *tratándose de una cuestión extremadamente sensible en materia de derechos fundamentales tan básicos como la dignidad e intimidad de las personas, resulta procedente anular el precepto que no resulta respetuoso con los citados valores y derechos al objeto de evitar una errada aplicación de la medida de registro contemplada en el mismo* (TRIBUNAL SUPREMO, 2015)¹³⁵

Hori horrela izanik, epaiak dio, 4/2000 Lege Organikoko 62 *quinquies* artikuluan zehazturiko segurtasun neurriak izango direla aplikagarri, erregelamendukoa moldatu bitartean.

Ala ere, egun diskrepantziak daude bitarteko honen erabileraren inguruan Bartzelona, Madril, Murtzia eta Balentziako ABZetan. Zuzendari eta funtzionarioek hauek egiten ez direla edota oso kasu berezietan burutzen direla adierazten duten bitartean, barneratuek, biluzi integraleko erregistroa, segurtasun neurri moduan erabiltzen dela esaten dute (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2016)¹³⁶.

4.2.2.4 Behar materialen asetzea

Erregelamenduan, barneratutako guztiek, horretarako beharra badute, arropa eta zapatak jasoko dituztela adierazten da, baino egun, eskubide hau posible egiteko aurrekontua ez da burutu, ondorioz, ez da bermatzen. Hori dela eta, Madrileko ABZn, noizean behin Gurutze Gorriak oinarrizko elementuak dituen kit moduko bat eskaintzen du (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2016)¹³⁷.

¹³⁴ JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA... *Op. Cit.* 2-3 orrialdeak.

¹³⁵ TRIBUNAL SUPREMO. (10 de febrero de 2015). STS 807/2015. Madrid. 48. orrialdea

¹³⁶ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2016)... *Op. Cit.* 54. orrialdea.

¹³⁷ *Ibidem*, 57. orrialdea.

4.2.2.5 Ondorioak

Duintasuna, Europar Batasunaren oinarritzko balio unibertsal eta banaezina da (TUEko 2. artikulua eta EBko Oinarritzko Eskubideen Kartako hitzaurrea). Espainiar Estatuaren kasuan, balio konstituzional eta zuzenbidearen printzipio orokorra da (GARCÍA CUADRADO, 2012)¹³⁸

Intimitatearen kasuan ordea, oinarritzko eskubide moduan kontsideratu denez, babes konstituzional osoa jasotzen du. Konstituzio Auzitegiako 57/1994 Sententziak, otsailaren 28koak, bi elementu hauen arteko lotura oso estua dela adierazten du, intimitatea, duintasunetik eratortzen delarik (TRIBUNAL CONSTITUCIONAL, 1994)¹³⁹

Ala ere, egun, Atzerritarren Barneratze Zentroetan bizituriko egoerek, bertako barneratuen duintasuna eta intimitatea urratzen dutela agerian geratzen da aipaturiko informetan. Errealitate gordinaren adibide soilak dira komunen eskuragarritasun eza, instalazio eta materialen egoera tamalgarria, biluzi integrala etab. Agerian geratzen da nola erregelamenduak zehazturiko bermeak ez betez, larriki urratzen diren ABZetan barneratuak dauden pertsonen duintasun eta intimitaterako eskubidea.

4.2.3 Osotasun fisiko eta psikikoa

Osotasun fisiko eta psikikoa eta bizitzarako eskubidea, Konstituzioko 15. artikulua pertsona orori aitortzen dion eskubide ukaezina da, eta aldi berean, tortura, tratu gizagabeko edo apalesgarriak ez jasotzeko eskubidea aitortzen da. Aitorpen horrek, betebeharrak sortzen ditu.

Botere publikoek, pertsona guztiek jasotzen duten tratua egokia dela bermatu behar dute, bereziki, beren menpe dauden pertsonena (LÓPEZ GUERRA, ESPÍN, GARCÍA MORILLO, PÉREZ TREMP, & SATRÚSTEGUI, 2016)¹⁴⁰, horren adibide direlarik ABZko barneratuak.

4.2.3.1 SAP 276/2015, Malaga sec. 3^a

Malagako Auzitegi Probintziaeko epai honetan, oso zabaldua izan zen kasu bat aztertu zen, Malagako Capuchinos Atzerritarren Barneratze Zentroan emandako gertakarien

¹³⁸ GARCÍA CUADRADO, A. (2012). Problemas constitucionales de la dignidad de la persona. *Persona y Derecho; Revista de fundamentación de las instituciones jurídicas y de derechos humanos*(67), 449-514. 477-483. orrialdeak

¹³⁹ TRIBUNAL CONSTITUCIONAL. (28 de febrero de 1994). STC 57/1994. Fundamento Jurídico cuarto.

¹⁴⁰ LÓPEZ GUERRA, L., ESPÍN, E., GARCÍA MORILLO, J., PÉREZ TREMP, P., & SATRÚSTEGUI, M. (2016). « Los derechos de la esfera personal» ESPÍN, EDUARDO autorea. *Derecho Constitucional: el ordenamiento constitucional Derechos y Deberes de los ciudadanos* (Vol. I) liburuan. Valencia: Tirant lo Blanch.196. orrialdea.

iguruan. Bi akusazio partikular eta popular batek, ABZko polizia nazionalako funtzionarioak akusatu zituen.

Epai honetan elementu asko eta oso ezberdinak aztertzen diren einean, garrantzitsuenak soilik aipatuko dugu. Akusazioaren hitzetan, polizia nazionalako funtzionarioek, ABZko emakumeekin festa pribatuak egiten zituzten, eta beren botere harremana erabiliz, abusu sexualak gauzatu zituten.

Horretarako, testigantza ezberdinak aurkeztu ziren, batzuk ABZko garbitzaileenak eta beste batzuk barneratutako emakumeenak, abusuen biktima zuzenak barne.

Horren aurrean, magistratuek kontsideratu zuten ABZ horretan denbora tarte zehatz batean, gaueko festa batzuk burutzen zirela eta horietan barneratutako emakumeek parte hartzen zutela. Abusu sexualen arira ordea, epaiak dio ez zela nahikoa froga aurkezten. Bide horretan, erabilitako argumentu ezberdinak ekarri nahi ditugu mahai gainera:

(1) Ciertamente es que en la Instrucción constan declaraciones de otras Testigos Protegidas, también internas del CIE, tomadas incluso como prueba anticipada, siendo lo cierto que este Tribunal considera insuficientes tales declaraciones sumariales, no sujetas a inmediación de este Tribunal, habiendo sido necesario que tales testigos hubieran declarado en el juicio, personalmente o por videoconferencia (AUDIENCIA PROVINCIAL DE MÁLAGA, 2015)¹⁴¹.

Epaietan zuzenean parte hartu ez zuten babesturiko testigu horiek, kanporatuak izan ziren administrazioarengatik, eta hori dela eta, ezin izan zuten zuzenean tribunalaren aurrean deklaratu. Ala ere, ikusten dugu nola nahiz eta beren deklarazioa froga moduan aurkeztua egon, magistratuentzat ez zen nahikoa izan.

(2) El hecho de que alguna limpiadora encontrara en su quehacer diario, preservativos, que se dicen usados en previas relaciones sexuales, no implica necesariamente que tales preservativos fueren usados por alguno de los acusados para practica de relaciones sexuales con las internas, máxime cuando por varios testigos se puso de manifiesto que las internas llevaban preservativos en sus equipajes y que en alguna ocasión los inflaban y los usaban como globos o los llenaban de agua para jugar con ellas (AUDIENCIA PROVINCIAL DE MÁLAGA, 2015)¹⁴².

¹⁴¹ AUDIENCIA PROVINCIAL DE MÁLAGA. (5 de ekaina de 2015). SAP 276/2015. Audiencia Provincial de Malaga, sec. 3^a. 27. orrialdea.

¹⁴² *Ibidem*, 26. orrialdea.

Hemen ikusten dugu ABZko garbitzaileen testigantza albo batera uzte bidean, magistratuek bere egin zutela, preserbatiboak aurkitzearen defentsaren arrazoiketa. Argudio edo posizio hau oinarri harturik, epaitegiak akusaturiko bost polizia nazionalak absolbitu zituen.

Giza Eskubideen Kontseiluak ordea, ez zuen eztabaidan jarri ABZ honetan barneratutako emakumeen testigantza, egiazkotzat eta larritzat joz gertakari hau (CONSEJO DE DERECHOS HUMANOS, 2013)¹⁴³.

4.2.3.2 Asistentzia psikologiko eta psikiatrikoa

Erregelamenduak kontrakoa adierazi arren, egun Atzerritarren Barneratze Zentroetan (TPMN 2015 eta 2016 urteetan bisitaturiko guztietan), ez da asistentzia psikologiko eta psikiatrikoa ematen, Administrazioak, Algeciras eta Tarifako kasuetan, egokitzen ikusten duelarik, behar duten pertsonak dagokion hospitalera bideratua izatearekin (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015)¹⁴⁴.

4.2.3.3 Asistentzia sanitarioa

Tarifan, ez dago mediku eta erizainaren presentzia konstanterik, administrazioaren arabera egokia delarik ezarria dagoen ordutegia. Algecirasekoan, gauetako zerbitzurik ez da existitzen (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015)¹⁴⁵

Las Palmas Kanaria Handikoan, ez dago Estatuko Administrazioaren menpeko medikurik, eta hitzarmena egin dagoen enpresa pribatuak eskaintzen duen ordutegi urriak (2 edo 3 ordukoa astelehenetik ostiralera) ez du osasunerako eskubidea bermatzen (JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA, 2015)¹⁴⁶

4.2.3.4 Ondorioak

Atal honetan eskainitako informazioa ikusirik, agerian geratzen da osotasun fisiko eta psikikoa bermatuko duten bitarteko nahikoa ez direla eskaintzen egun Atzerritarren Barneratze Zentroetan, 162/2014 erregelamendua urratuz, eta eskubide urraketa larria gauzatuz. Egoera horren inguruko kezka azaleratzen du (COMITÉ PARA LA

¹⁴³ CONSEJO DE DERECHOS HUMANOS. (6 de junio de 2013). Informe del Relator Especial sobre las formas contemporáneas de racismo, discriminación racial, xenofobia y formas conexas de intolerancia, Mutuma Ruteere, 11. orrialdea.

¹⁴⁴ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2015)... *Op. Cit.* 47. orrialdea.

¹⁴⁵ *Ibidem*, 47. orrialdea.

¹⁴⁶ JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA... *Op. Cit.* 4 eta 11. orrialdeak.

ELIMINACIÓN DE LA DISCRIMINACIÓN RACIAL, 2016)¹⁴⁷, espainiak igorritako informeen inguruko oharretan.

Agerian geratzen da ere, inpunitate eremu bihurtzen dela kasu batzuetan ABZ. Bide horretan, honakoa adierazten du Giza Eskubideen kontseiluak, 2013ko ekainaren 6an igorritako informean: “*se subrayó que las quejas presentadas por inmigrantes detenidos en relación con las violaciones sufridas en los CIE no siempre se tramitan antes de la comparecencia del inmigrante ante el juez por el hecho de estar pendientes de expulsión*” (CONSEJO DE DERECHOS HUMANOS, 2013)¹⁴⁸

Hori horrela izanik, ulertzen dugu egun Atzerritarren Barneratze Zentroetan, osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea ez dagoela bermatua, horrek ondorio oso kaltegarriak ekartzen dituelarik bertako barneratuentzat.

4.2.4 Dokumentazioa izateko eskubidea

Atzerritarren Barneratze Zentro batetik irtetean, pertsona guztiek, dokumentu bat jasotzeko eskubidea dute¹⁴⁹, non adieraziko den barneratuak egon direla eta zenbat denbora igaro duten bertan. Barneratuek duten eskubide hau, betebeharra da ABZrentzat, izan ere, lotura estua dauka 4/2000 Lege Organikoko 4. artikuluekin, dokumentazioa izateko eskubidearekin hain zuzen.

Eskubide edo betebeharrak hau errespetatuz, *non bis in idem* printzipioa bermatuko da, kautela neurri askatasungabetzaile hau berriz ere pertsona berari ez aplikatzea lortuz.

Justizia Auzitegiaren arabera, *Non bis in idem* printzipioa, Zuzenbide Komunitarioko oinarritzko printzipioa da, lotura estua duelarik, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 7. protokolo 4.1 artikuluekin (BENEYTO PÉREZ, MAILLO GONZÁLEZ-ORÚS, & BECERRIL ATIENZA, 2009)¹⁵⁰

Jakina da ordea, dokumentu honen eskuratzean gora berak ematen direla eta kasu batzuetan honelakorik ematen ez dela. Horrek, hutsune handi bat sortzen du, eta pertsona

¹⁴⁷ COMITÉ PARA LA ELIMINACIÓN DE LA DISCRIMINACIÓN RACIAL. (13 de mayo de 2016). Observaciones finales sobre los informes periódicos vigésimo primero, vigésimo segundo y vigésimo tercero de España. 4. orrialdea

¹⁴⁸ CONSEJO DE DERECHOS HUMANOS. (6 de junio de 2013). Informe del... *Op. Cit.* 11. orrialdea

¹⁴⁹ 162/2014 Erregelamendua... *Op. Cit.* 37.4 artikulua.

¹⁵⁰ BENEYTO PÉREZ, J. M., MAILLO GONZÁLEZ-ORÚS, J., & BECERRIL ATIENZA, B. (2009). «Nacimiento y evolución» SILVA DE LAPUERTA, R. autorea. *Tratado de Derecho y Políticas de la Unión Europea; Derechos Fundamentales* (Vol. II) liburuan. Pamplona: Aranzadi. 42. orrialdea.

bera berriz ere barneratzeko aukerak sortzen ditu (JARRÍN MORÁN, RODRÍGUEZ GARCÍA, & DE LUCAS, 2012)¹⁵¹

4.2.5 Berdintasuna eta diskriminatua ez izateko eskubidea

Konstituzioko 14. artikuluan aitorturiko eta Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen 12. hitzarmenean babesturiko oinarrizko eskubidea da berdintasuna.

“*La igualdad es un valor en el que se fundamenta la Unión misma. Es una de las razones de ser del sistema.*” (MANGAS MARTIN, GONZÁLEZ ALONSO, LÓPEZ ESCUDERO, MARTÍN Y PEREZ DE NANCLARES, & SOBRINO HEREDIA, 2008)¹⁵².

Berdintasunerako eskubide hori, materiala izan beharrea, formaltasun hutsean geratzen da askotan giza eskubideen alorrean. Izan ere, geroz eta emakume emigrante gehiago daude, eta hauen giza eskubideak, bai igarotze eta baita helmuga herrialdeetan, ohikotasunez urratuak izaten dira (FORNÉS COSTÁN, 2013)¹⁵³.

4.2.5.1 Genero ikuspuntutik gabeko politikak

Oinarrizko arazoa, genero perspektiba eza da, hau da, politika, neurri eta arau denak (barneratze zentroetako instalazioak barne) emakumeen egoera eta problematika berezia kontuan hartu gabe burutzen direla. Erroko arazo horren ondorioz, adibide moduan ditugu, Las Palmas Kanaria Handiko ABZan ez egotea emakume bat ere ez plantillan lan egiten edota higienarako banatzen den elementuen artean, ez dela emakumearen higie intimorako materiala banatzen (JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA, 2015)¹⁵⁴.

4.2.5.2 Instalazio falta

Emakumeek Atzerritarren Barneratze Zentroetan jasaten duten diskriminazioaren ageriko elementua da bizitzea dagokien eremua.

¹⁵¹ JARRÍN MORÁN, A., RODRÍGUEZ GARCÍA, D., & DE LUCAS, J. (2012). «Los Centros de Internamiento de Extranjeros en España: Origen, funcionamiento e implicaciones jurídico-sociales». *Documentos CIDOB Migraciones*(26). 10. orrialdea.

¹⁵² MANGAS MARTIN, A., GONZÁLEZ ALONSO, L. N., LÓPEZ ESCUDERO, M., MARTÍN Y PEREZ DE NANCLARES, J., & SOBRINO HEREDIA, J. M. (2008). *Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea: comentario artículo por artículo*. Bilbo: Fundación BBVA. 392. orrialdea.

¹⁵³ FORNÉS COSTÁN, A. I. (2013). ¿Por qué yo? ¿Por qué a mí? testimonios en el Centro de Internamiento de Extranjeros (CIE) Zapadores de Valencia. *Ecléctica. Revista de estudios culturales*(2), 115-125, 118. orrialdea.

¹⁵⁴ JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA... *Op. Cit.* 3. orrialdea.

Honela definitzen du Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalak Algeciraseko patioa: “*El patio de mujeres no reunía las condiciones mínimas para ser llamado pario, a pesar de que desde el año 2012 se viene insistiendo en ello por parte del MNP*” (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015)¹⁵⁵.

Las Palmas Kanaria Handikoan ordea, patio bakarria dago bi moduloetarako. Ondorioz, sexuen arteko banakena mantentze bidean, ordutegi ezberdinak dituzte emakume eta gizonezkoek eta emakumeen kasuan, gutxiago direnez, okerragoak dira (JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA, 2015)¹⁵⁶.

Eraikuntzaz gain, Algeciraseko ABZn, bestelako material edo mobiliario falta dagoela adierazten du informe berak, aisialdi eremuko salan soilik, aulki bat eta bi koltxoneta zeudelarik 13 emakumerentzat (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015)¹⁵⁷.

4.2.5.3 Asistentzia sozial eza

Zentro hauetan barneratuta dauden pertsona denentzat oso larria den arren asistentzia sozialik ez jasotzea, emakumeen kasuan, larritasun hori areagotu egiten da. Izan ere, bertako ehuneko handi batek, trata edo prostituzioa jasan dute, babes honen beharra areagotu egiten delarik. Askok, babes internazionala jasotzeko aukerak izan ahalko luketen arren (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015)¹⁵⁸, langile sozialak ez egonik, honelako kasuak ez identifikatu eta ondorioz sahiesteko aukera galtzen da.

4.2.5.4 Ondorioak

Berdintasuna gauzatzeko, bitartekoak jartzea ezinbestekoa da, hori egin ezean, ez baita benetako parekidetasunik lortuko. Kasu honetan, emakume migratzaileekiko diskriminazio egoera larri bat ematen ari dela argi geratzen da, instalazio eta material falta, emakumeen problematika edota bestelako ezaugarriak kontuan hartu gabeko neurriak etb.

Izan ere, legeak sexuen arteko bereizturiko moduluak osatu eta bermatu behar direla adierazten duenean, ez du bestelako desberdintasunik aipatzen, eta argi ikusi dugu egun,

¹⁵⁵ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2015)... *Op. Cit.* 49. orrialdea.

¹⁵⁶ JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA... *Op. Cit.* 12. orrialdea.

¹⁵⁷ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2015)... *Op. Cit.* 49. orrialdea.

¹⁵⁸ MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2015)... *Op. Cit.* 46. orrialdea.

desberdintasun horiek existitzen direla. Kasu hauetan beraz, emakumeak Atzerritarren Barneratze Zentroetan, emakume izateagatik diskriminatuak direla ulertzen dugu.

5. Ondorioak

5.1 Europar Batasuneko neurriak

Europar Batasunak, oinarrizko eskubideen eta zirkulazio librearen aldarria burutzen duen bitartean, immigrazio fluxuak, bere onurarako erabiltzen ditu. Horretarako, bereizketa oso argi bat eramaten da aurrera atzerritarren artean: ekonomikoki edota demografikoki EBrentzat onuragarri direnak eta ez direnak. Hori ondorioztatzen da behin eta berriz immigrazioaren inguruan publikatzen dien dokumentuetatik.

Banaketa horretan onuragarri suertatzen ez diren pertsonak mugetatik kanpo mantentzeko neurriak hartzen dira, diru eta esfortzu asko inbertituz. Neurri horien adibide izango dira lan honetan aztergai izan diren politikak.

1.5.1 Mugen itxiera

Frontex eta bestelako agentzia edo proiekturen bitartez, Europar Batasunaren kanpo mugak geroz eta itxiagoak bihurtzen dira, gogora ekarri behar ditugularik ere eraikitako hesiak. Horren ondorioz, migrazio fluxuek geroz eta arriskutsuagoak diren bideak hartu behar dituzte EBra iristen saiatzeko, beren buruak arriskuan jarriz.

1.5.2 Hirugarren estatuekin egindako akordioak

Europar Batasunak, Giza Eskubideen errespetu osoa bermatu behar du mugen kontrola gauzatzean (KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA, 2002)¹⁵⁹ Hori bera adierazten du Europako Parlamentuko 2007ko ebazpenak:

“Considera esencial garantizar el respeto de los derechos humanos fundamentales de estos inmigrantes. Destaca que toda medida de lucha contra la inmigración clandestina y de control de las fronteras exteriores debe respetar las garantías y los derechos fundamentales de las personas” (PARLAMENTO EUROPEO, 2007)¹⁶⁰

¹⁵⁹ COMITÉ ECONOMICO Y SOCIAL. (25 de Abril de 2002). Dictamen del Comité Economico y Social sobre la «Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo relativa a una política común de inmigración ilegal». 79-83. Bruselas. 135. orrialdea

¹⁶⁰ PARLAMENTO EUROPEO. (26 de Septiembre de 2007). Prioridades políticas en la lucha contra la inmigración clandestina de los nacionales de terceros países. *Resolución del Parlamento Europeo, sobre las prioridades políticas en la lucha contra la inmigración clandestina de los nacionales de terceros países.* Estrasburgo.

Aipamena egiten zaie ere oinarrizko eskubideen errespetuari, 1052/2013 Erregelamenduan, zehazki ez itzultzeko printzipioaren babesari. (EUROPAKO PARLAMENTU eta KONTSEILUA, 2013)¹⁶¹

Giza Eskubideen errespetua beraz, oinarrizko elementu dela uler dezakegu bai politiken aplikazioan baita zehazki aberriratzeko akordioak burutzerako garaian:

“Los estados miembros de la UE no deben suscribir acuerdos de readmisión con países terceros en circunstancias de grave inestabilidad política y de falta de respeto de los derechos humanos” (KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA, 2002)¹⁶²

Zehaztapen hori (EBk ezingo duela Giza Eskubideak bermatzen ez dituen estatuekin aberriratzeko akordioak burutu) edozein hirugarren estaturekin burutzen duen akordio denetara zabaldu daitezkeela edo behar dela ulertzen dugu. Izan ere, muga oso zehatz eta beharrezko batez hitz egiten da debeku horretan: oinarrizko eskubideen errespetua.

Mauritaniaren kasua, akordio hauen adibide moduan erabiliz, honela definitzen du estatu hau Amnistia Internazionalak 2016/2017ko informean:

“Se procesó por motivos políticos a defensores de los derechos humanos y a opositores del gobierno, y se persiguió especialmente a las organizaciones de lucha contra la esclavitud. Se restringió el derecho a la libertad de expresión, de asociación y de reunión pacífica. La tortura y otros malos tratos bajo custodia eran práctica habitual. Se sometía a discriminación sistemática a unos grupos que constituían dos tercios de la población, y la pobreza extrema era generalizada. Continuaba la práctica de la esclavitud” (AMNISTIA INTERNACIONAL, 2016/2017)

Hori kontuan izanik, ulertzen dugu Mauritaniarekin burututako akordioek, ez dutela Europar Batasunak ezarritako bermea betetzen.

5.2 Espainiar Estatuko neurriak

2.5.1 Atzerritarrekiko errepresio politika

Neurri horien ondoren ere, mugen gurutzatzea lortzen badu ere atzerritarrak, errepresiora bideratutako politikekin egingo du topo: sarekada arrazistak, atxiloketak eta azkenik barneratzea. Neurri horiek eragiten duten klandestinitateak, prekaritate egoera larria

¹⁶¹ PARLAMENTO EUROPEO Y CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (22 de Urria de 2013). 1052/2013 Erregelamendua. Estrasburgo. 2.4 artikulua

¹⁶² COMITÉ ECONOMICO Y SOCIAL. (25 de Abril de 2002). Dictamen del Comité Económico y Social sobre la «Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo relativa a una política común de inmigración ilegal». 79-83. Bruselas. 83. orrialdea, 3.9.1 paragrafoa

sortzen du egoera irregularrean dauden pertsonengan, laborala denetan adierazgarriena izanik:

“Estando prohibido trabajar y castigado el dar empleo a un inmigrante irregular, a éste le resulta muy difícil encontrar un trabajo, si quiera eventual, y si lo obtiene suele ser en condiciones de explotación” (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2009)¹⁶³.

2.5.2 Atzerritarren Barneratze Zentroak


Espainiaren kasuan, zentro hauetan ematen diren eskubide urraketak ere agerikoak dira, batzuk estrukturaren ondoriozkoak (instalazioetatik eratorritakoak kasu) eta besteak bertako pertsonalak eragindakoak. Baina kasu denetan, oso zaila egiten da hauen salaketa eta konpontzea.

Atzerritar bat, urraketa administratibo bat egiteagatik kanporatua eta horretarako barneratua izateko aukera bera, eskubideen aldetik eztabaidagarria da, baina are gehiago, kanporaketa hori ematen ez denean.

Mahai gainera ekarri beharra dago 2015. urtean, barneratuen %41,43a izan zela soilik kanporatua, eta 2016. urtean, %29,02a (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2015) eta (MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA, 2016).

Kopuru horiek oso esanguratsuak direla ulertzen dugu. Lehenik, barneratzearen eskaria burutzen duten

funtzionarioek ez dutelako modu egokian erabiltzen legeak onarturiko tresna hau, adibidez, onarpen akordiorik ez daukan herrialde bateko atzerritarraren barneratzea eskatzerakoan.



¹⁶³ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2009). «Inmigración, Derechos Humanos y política Criminal: ¿Hasta dónde estamos dispuestos a llegar?». *InDret*. 14. orrialdea

Bigarrenik, ondorioztatzen dugu kontrol judizialak ere ez duela dagokion kontrol funtzioa egikaritzen, horren adibide dugularik, asilo eskubidea duen baino ala ere barneratua den pertsona.

Azkenik, eta hori guztia ikusirik, ulertzen dugu egun, Atzerritarren Barneratze Zentroek ez dutela beren funtzioa egikaritzen, atzerritarren kanporatzea. Horren beharrea, zigor eta beste atzerritarrekiko disuasio neurri moduan erabiltzen da, lehen aipaturiko helburua lortze bidean: immigrante irregularrak kanpo mantentzea.

“Al comité le preocupa el uso recurrente de la privación de libertad a inmigrantes en situación irregular” (COMITÉ DE DERECHOS HUMANOS)¹⁶⁴.

Barneratzearen erabilera honek, Giza Eskubideen Komitea kezkatzen du, baita Zentro hauetako funtzionarioen kontrako tratu txarren salaketek. Zoritxarrez, ABZen historia tratu txar fisiko zein psikologikoren salaketez bete dago” (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2009)¹⁶⁵.

5.3 Atzerritarrekiko politikak eta jarrera

Lan honetan, agerian utzi ditugu Europar Batasunean eta zehazki Espainiar Estatuan aurrera eramaten diren atzerritarrekiko politikek, eskubide urraketak eragiten dituztela, migrazio fluxuak onura ekonomikoko perspektibatik aztertu eta beraz moldatu nahian buruak direlarik.

Margarita Martínez autorea jarraituz, modu honetara defini daitezke immigrazio politikak: *que no salgan, que no entren qu ese vayan* (MARTÍNEZ ESCAMILLA M. , 2009)¹⁶⁶

¹⁶⁴ COMITÉ DE DERECHOS HUMANOS. (2015). Observaciones finales sobre el sexto informe periódico del España. 5. orrialdea

¹⁶⁵ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2009). «Inmigración, Derechos Humanos y política Criminal: ¿Hasta dónde estamos dispuestos a llegar?». *InDret*. 31. orrialdea

¹⁶⁶ MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2009). «Inmigración, Derechos Humanos y política Criminal: ¿Hasta dónde estamos dispuestos a llegar?». *InDret*. 5. orrialdea

6. Iturriak

6.1 Bibliografia

- ABARCA JUNCO, A. P., ALONSO-OLEA GARCÍA, B., LACRUZ LÓPEZ, J. M., MARTÍN DÉGANO, I., & VARGAS GÓMEZ-URRUTIA, M. (2008). *Inmigración y extranjería: Régimen jurídico básico*. Madrid: COLEX.
- AGIRRE, A., RUIZ, M., & CANTALAPIEDRA, M. (2015). «La visibilidad de los Centros de Internamiento de Extranjeros: dinámicas entre el movimiento asociativo y los periodistas». *Revista Latina de Comunicación Social*(70), 913-933.
- AMNISTIA INTERNACIONAL. (2016/2017). <https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/paises/pais/show/mauritania/> helbidetik eskuratua
- BALAGUER CALLEJÓN, F., CÁMARA VILLAR, G., LÓPEZ AGUILAR, J. F., BALAGUER CALLEJÓN, M. L., & MONTILLA MARTOS, J. A. (2012). *Manual de Derecho Constitucional* (séptima. ed., II. bol.). Madrid: Tecnos.
- BENEYTO PÉREZ, J. M., MAILLO GONZÁLEZ-ORÚS, J., & BECERRIL ATIENZA, B. (2009). *Tratado de Derecho y Políticas de la Unión Europea; Derechos Fundamentales* (II. bol.). Pamplona: Aranzadi.
- COMISIÓN ESPAÑOLA DE AYUDA AL REFUGIADO. (10 de Diciembre de 2008). Informe de Evaluación del Centro de Detención de Migrantes en Nouadhibou (Mauritania). Madrid.
- DIRECCIÓN GENERAL DE LA POLICIA; MINISTERIO DEL INTERIOR. (2014). Circular 6/2014. *Criterios para solicitar el ingreso de ciudadanos extranjeros en los centros de internamiento*.
- FORNÉS COSTÁN, A. I. (2013). «¿Por qué yo? ¿Por qué a mí? testimonios en el Centro de Internamiento de Extranjeros (CIE) Zapadores de Valencia». *Ecléctica. Revista de estudios culturales*(2), 115-125.

- GARCÍA CUADRADO, A. (2012). Problemas constitucionales de la dignidad de la persona. *Persona y Derecho; Revista de fundamentación de las instituciones jurídicas y de derechos humanos*(67), 449-514.
- GARCÍA MACÍAS, P., & SIGALA VACIO, S. A. (enero-junio de 2016). El bunker de la Europa «sin fronteras» (los seis muros de la vergüenza). *Migración y Desarrollo*, 14(26), 197-207.
- GONZÁLEZ VEGA, J. A. (2016). El marco jurídico internacional y europeo de la acogida de los refugiados y la incidencia de la declaración UE-Turquía. *Errefusiatuen Krisiari buruzko EHUko Udako Kongresuko Kurtsoa*.
- JARRÍN MORÁN, A., RODRÍGUEZ GARCÍA, D., & DE LUCAS, J. (2012). «Los Centros de Internamiento de Extranjeros en España: Origen, funcionamiento e implicaciones jurídico-sociales». *Documentos CIDOB Migraciones*(26).
- LÓPEZ BENITEZ, M. (2014.eko maiatza-abenduak). «El nuevo régimen jurídico de los Centros de Internamiento de Extranjeros». *R.V.A.P.*(num. especial 99-100), 1905-1935.
- LÓPEZ GUERRA, L., ESPÍN, E., GARCÍA MORILLO, J., PÉREZ TREMP, P., & SATRÚSTEGUI, M. (2016). *Derecho Constitucional: el ordenamiento constitucional Derechos y Deberes de los ciudadanos* (Vol. I). Valencia: Tirant lo Blanch.
- MANGAS MARTÍN, A., & LIÑÁN NOGUERAS, D. (2016). *Instituciones y Derecho de la Unión Europea*. Madrid: Tecnos.
- MANGAS MARTIN, A., GONZÁLEZ ALONSO, L. N., LÓPEZ ESCUDERO, M., MARTÍN Y PEREZ DE NANCLARES, J., & SOBRINO HEREDIA, J. M. (2008). *Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea: comentario artículo por artículo*. Bilbo: Fundación BBVA.
- MANZANEDO, C. (2011). «Expulsiones forzosas de España: los Centros de internamiento de Extranjeros (CIE)». *En la Calle*(19), 2-4.

- MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J. (2002). *La inmigración y el asilo en la Unión Europea - Hacia un nuevo espacio de libertad, seguridad y justicia*. Madrid: Colex.
- MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2009). «Inmigración, Derechos Humanos y política Criminal: ¿Hasta dónde estamos dispuestos a llegar?». *InDret*.
- MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (2013). *Mujeres en el CIE: género, inmigración e internamiento*. Madrid.
- MARTÍNEZ ESCAMILLA, M., & SÁNCHEZ TOMÁS, J. (2011). «Controles de identidad, detenciones y uso del perfil étnico en la persecución y castigo del inmigrante "sin papeles": ilegalidad e inconstitucionalidad de determinadas prácticas policiales». *INMIGRAPENAL (Grupo Inmigración y Sistema Penal)*.
- MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2015). Informe anual 2015 del Mecanismo Nacional de Prevención de la Tortura.
- MECANISMO NACIONAL DE PREVENCIÓN DE LA TORTURA. (2016). Informe anual 2016 del Mecanismo Nacional de Prevención de la Tortura.
- MORA CABO, J. (Abril - Junio de 2012). «Centros de Internamiento de Extranjeros». *Tribuna*(185), 65-67.
- OEHLING DE LOS REYES, A. (2011). «El concepto constitucional de dignidad de la persona: forma de comprensión y modelos predominantes de recepción en la Europa continental». *Revista Española de Derecho Constitucional*(91), 135-178.
- POMARES CINTAS, E. (septiembre - febrero de 2014 - 2015). «La Unión Europea ante la inmigración ilegal: la institucionalización del odio». *Eunomia, Revista en Cultura de la Legalidad*(7), 143-174.
- SOLANES CORELLA, Á. (Mayo-Junio de 2005). «La política de inmigración en la Unión Europea: desde tres claves». *Arbor*(73), 81-100.

6.2 araudia eta beste testu batzuk

162/2014 Erregelamendua. (2014.eko martxoak 14). *162/2014 Erregelamendua, Atzerritarren Barneratze Zentroen funtzionamendu eta barne erregimena arautzeko.*

4/2000 Lege Organikoa. (2000.eko Urtarrilak 11). *4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa.*

4/2015 Lege Organikoa. (2015.eko Martxoak 30). *Ley Organica 4/2015, de protección de la seguridad ciudadana.*

7/1985 Lege Organikoa. (1985). *7/1985 Lege Organikoa, Atzerritarren eskubide eta askatasunen ingurukoa.*

AUDIENCIA PROVINCIAL DE MÁLAGA. (2015.eko ekainak 5). SAP 276/2015. *Audiencia Provincial de Malaga, sec. 3ª.*

COMITÉ DE DERECHOS HUMANOS. (2015). Observaciones finales sobre el sexto informe periódico del España.

COMITÉ PARA LA ELIMINACIÓN DE LA DISCRIMINACIÓN RACIAL. (13 de mayo de 2016). Observaciones finales sobre los informes periódicos vigésimo primero, vigésimo segundo y vigésimo tercero de España.

CONSEJO DE DERECHOS HUMANOS. (6 de junio de 2013). Informe del Relator Especial sobre las formas contemporáneas de racismo, discriminación racial, xenofobia y formas conexas de intolerancia, Mutuma Ruteere.

CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (2004.eko urriak 26). Reglamento (CE) n° 2007/2004. *Reglamento (CE) n° 2007/2004 por el que se crea una Agencia Europea para la gestión de la cooperación operativa en las fronteras exteriores de los Estados miembros de la Unión Europea.*

CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA. (24 de Septiembre de 2008). Pacto europeo sobre inmigración y asilo. Bruselas.

CONSEJO EUROPEO. (2002). Propuesta de Plan Global para la lucha contra la inmigración ilegal y la trata de seres humanos en la Unión Europea. 24-34.

EUROPAKO KONTSEILUA. (29 de Abril de 2004). Decisión del Consejo, relativa a la organización de vuelos conjuntos para la expulsión, desde el territorio de dos o más Estados miembros, de nacionales de terceros países sobre los que hayan recaído resoluciones de expulsión. Luxemburgo.

EUROPAKO KONTSEILUA. (2016.eko Martxoak 18). Declaración UE-Turquía.

EUROPAKO PARLAMENTU ETA KONTSEILUA. (2008.eko Abendua). Directiva 2008/115/ce del Parlamento Europeo Y el Consejo de la Unión Europea, relativa a normas y procedimientos comunes en los Estados miembros para el retorno de los nacionales de terceros países en situación irregular. 98-107. Estrasburgo.

EUROPAKO PARLAMENTU eta KONTSEILUA. (2013.eko urriak 22). 1052/2013 Erregelamendua. Estrasburgo.

JUZGADO de INSTRUCCIÓN N°8, LAS PALMAS DE GRAN CANARIA. (31 de julio de 2015). Auto juez de control de instancia.

KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA. (2002.eko Apirilak 25). Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo relativa a una política común de inmigración ilegal. *Dictamen del Comité Económico y Social sobre la <Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo relativa a una política común de inmigración ilegal>*. Bruselas.

KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA. (2002.eko Apirilak 25). Dictamen del Comité Económico y Social sobre la «Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo relativa a una política común de inmigración ilegal». 79-83. Bruselas.

KOMITE EKONOMIKO ETA SOZIALA. (2011.eko apirilak 25). Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones - Enfoque global de la migración. *Dictamen del Comité Económico y Social sobre la «Comunicación de la Comisión al*

Parlamento Europeo, al consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones - Enfoque global de la migración». Bruselas.

PARLAMENTO EUROPEO. (26 de Septiembre de 2007). Prioridades políticas en la lucha contra la inmigración clandestina de los nacionales de terceros países. *Resolución del Parlamento Europeo, sobre las prioridades políticas en la lucha contra la inmigración clandestina de los nacionales de terceros países.* Estrasburgo.

RUTEERE, M. (28 de enero de 2013). Texto íntegro de la declaración de prensa del Relator Especial de las Naciones Unidas sobre las formas contemporáneas de racismo, discriminación racial, xenofobia y otras formas conexas de intolerancia. Madrid.

TFUE. (1957). *Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.*

TRATADO DE LA UNIÓN EUROPEA. (1992.eko Otsailak 7). Maastricht.

TRIBUNAL CONSTITUCIONAL. (26 de septiembre de 1990). STC 144/1990.

TRIBUNAL CONSTITUCIONAL. (28 de febrero de 1994). STC 57/1994.

TRIBUNAL CONSTITUCIONAL. (1999.eko ekainak 14). STC 149/1999.

TRIBUNAL CONSTITUCIONAL. (2008.eko abenduak 15). STC 169/2008.

TRIBUNAL SUPREMO. (10 de febrero de 2015). STS 807/2015. Madrid.